

Arrasate Press

ARRASATE / Eguena / 2005eko irailaren 8a / 727. zenbakia

HIRIGINTZA/ Zerrajera 2 gunean aldaketak

Aprendizen Eskola ez botatzeko proposamena egin du Udalak

URANE MADERA

Kutxak eta Caixak interesa erakutsi dute Aprendizen Eskola inguruan etxebizitzak eraikitze-ko. Hori egin ahal izateko, Udalak Egitamu Orokorra aldatzea proposatu du; besteak beste, Aprendizen Eskolaren eraikina bere horretan uztea proposatu du.

Arrasaten gazteei zuzendutako etxebizitzak egiteko interesa dute Kutxa eta Caixa aurrezki kutxek. Hain justu ere, Zerrajera 2 izeneko gunean eraiki gura dituzte, hau da, Aprendizen Eskolatik (orain Arrasate Musikal dagoen lekutik) Eskualdeko Ospitale ingururaino. Kutxak eta Caixak pentsatu dutena da gazteendako 350 etxebizitza eraikitzea, alokairuan emateko bost urteko epean. Eta gero, 10 edo 15 urteren ostean, babes ofizialeko etxebizitza moduan saltzea da asmoa. Kutxak 182 etxebizitza eraikiko lituzke eta Caixak 150.

APRENDIZEN ESKOLAREN ERAISPENA

Baina hori guztia egin ahal izateko, Udalak Egitamu Orokorrean onartutako proiektua aldatu egin beharko du. Eta horrek ekarriko dituen aldaketan artean, Aprendizen Eskolaren eraispena bertan behera geldituko litzateke.

Hain justu ere, orain arte honako proiektua zuen Arrasateko Udalak Zerrajera 2 gune-rako: erlojuaren eraikina, Telefonicarena eta INEMen eraikina bere horretan utzi; Aprendizen Eskola, berriz, bota. Besteak beste, gune hartan babes ofizialeko 476 etxebizitza eta jarduera ekonomikoetarako gunea eraikitzea zen asmoa.

BI ALDAKETA: ETXEBIZITZA GEHIAGO

Orain, berriz, bi aldaketa proposatzen ditu Udalak: batetik, jarduera ekonomikoetarako gunea kendu eta espazio hori ere etxebizitzak eraikitzeke erabiltzea; modu horretan, dezente handituko lukete etxebizitza kopurua.

Bestetik, zera ere proposatzen du: Aprendizen Eskola bere



AINHOA GARMENDIA

Aprendizen Eskolak duen balio historikoarengatik proposatu du orain Udalak hura ez bota eta beste zerbaitetarako erabiltzea.

Aprendizen Eskolatik Ospitalerainoko gunean etxebizitza gehiago eraiki gura ditu Udalak

horretan utzi, eta eskolaren atzeko aldean etxebizitza gehiago eraiki eta hotel bat ipintzeko lekua gordetzea. Besteak beste, Arrasatek duen hotel eskaintza motz geratzen da-eta.

APRENDIZEN ESKOLA: HIRU AUKERA

Horrez guztiaz gainera, Aprendizen Eskolarekin lotuta, Udalak beste hiru aukera proposatzen ditu: batetik, Aprendizen Eskola hornikuntza erabilerrako izatea; esaterako, azoka ipintzeko, zaharrendako egoitza... Eta haren ondoan hotel

Aprendizen Eskola bota beharrean, bere horretan utzi eta beste erabilera bat eman gura diote

bat eraikitzeke partzela gordetzea eta etxebizitza bloke txiki bat eraikitzea.

Bigarren proposamenean, Aprendizen Eskola hotel bilakatuko litzateke oso-osorik, eta modu horretan, eremuko gainerrako espazio guztia etxebizitzak eraikitzeke izango litzateke. Bigarren kasu horretan, etxebizitza kopurua handiagoa litzateke eta etxeen erdian plaza bat egingo lukete.

Eta hirugarren aukera litzateke Aprendizen Eskolari *loft* erabilera ematea. Hau da, Euro-

Herritarren iritzia eta ekarpenak jaso gura ditu Udalak: Hirigintza Sailean egin daiteke hori

pan eta Ameriketako Estatu Batuetan horren ezagunak diren etxebizitzak egitea: nabe industrialen barruan egindakoak.

HERRITARREN PROPOSAMENAK

Bukatzeko, eta lehen esandako moduan, proiektu osoa jendarean dago orain eta halaxe izango da irailaren 30era arte. Tarte horretan, interesa duen edozeinek eska dezake proiektua Hirigintza Sailean eta nahi dituen ekarpen edo proposamenak egin, egokien iruditzen zaion aukera zein den adierazi...

LABUR

Zapatuan joango dira azken sahararrak kanpalekuetara

Gaur, eguena, joan dira saharar neska-mutiko gehienak euren jatorrizko kanpalekuetara. Batzuk triste, baina gehienak pozik, familiarengana bueltatuko direlako. Guztira, 14 neska-mutiko ziren, baina, albiste hau idaztean kontaktu digutenez, azken unera arte ez zuten jakingo 14 edo 12 itzuliko ziren Saharara; izan ere, bi mutiko (8 eta 10 urtekoak) Arrasaten geratzekotan ziren, osasun kontuengatik.

Gainerako neska-mutikoak, berriz (lau), zapatuan joango dira.

Jatorrizko kanpalekuen arabera banatuta itzuli dira umeak Saharara.

Umeak ekartzeaz arduratzen den NUBI elkarteak oraindik ez du egin aurten go udako jardunaren balorazioa. Edozelan ere, NUBIko kide Agurne Juldainek aurreratu digunez, nahiko ondo atera zaie guztia: "Urteroko arazo txikiak izan ditugu, baina bestela, ondo joan da guztia".

Era berean gaineratu digu udako lan hori bukatu duten arren, dagoeneko bada-biltzala Gabonetara begira lanean. Izan ere, urtero jakiak batzen ditu NUBI elkarteak, Saharako kanpalekuetara bidaltzeko: "Hil honen bukaeran-edo hasiko gara Udalekin lehen harremanak-eta izaten".

Garibai kalea berriro itxiko dute, lanengatik

Oraingo astean egin duten moduan, hurrengo astelehenean, hilak 19, berriro itxiko dute Garibai kalea. Berez, 08:00etatik 15:00ak arte dira kalea itxekotan. Hori bai, lanak lehenago bukatzen badituzte, lehenago zabalduko dute. Biteriko lur azpiko aparkalekuetan egiten dabil-tzan lanen ondorioz, Garibai kalea zamalanak egiteko behar dutela-eta itxi dute egu-notan kale hori.



Dagoeneko dezente igartzen da jende gutxiago joaten dela kanpoko igerilekura; eguraldiak ere ez du askorik laguntzen.

GIZARTEA/ Udako denboraldia bukatzeaz

Kanpoko igerilekuak itxi eta barrukoa zabalduko dituzte

UBANE MADERA

Datorren astelehenean, hilak 12, itxi behar zituzten kanpoko igerilekuak eta egun berean zabaldu barrukoak. Baina, aldageletan-eta egiten dabil-tzan zoru-aldaketa lanek eraginda, irailaren 16ra arte izango dira zabalik kanpoko igerilekuak.

Musakolako kiroldegikoek jakinarazi digutenez, dagoeneko dezentete egin du behera kanpoko igerilekura doan erabiltzaileen kopuruak. Beraz, igartzen da bukatzeaz dagoela aurtengo udako denboraldia. Eta horren seinale izaten da kanpoko igerilekuak itxi egiten dituztela eta barrukoak zabaldu. Berez, astelehenean egin behar zuten hori. Baina aldageletan eta saunan egiten dabil-tzan lanak ez dituzte irailaren 16ra arte bukatuko. Gauzak horrela, eta guztia gertu eta erabiltzeko moduan iza-

teko asmoarekin, erabaki dute kanpoko igerilekuak irailaren 16ra arte izatea zabalik. Eta barruko igerilekuak hurrengo egunean zabal-tzea. Denboraldi berriarekin bate-

*Uztailean ibili da
jende gehien
kanpoko
igerilekuan: 25.000
lagun inguru*

*Ezparen eta erleen
zistadez eta ebaki
txikiez gainera, ez
da ezer larririk
gertatu*

ra, ordutegi berria ere abiaraziko dute: 07:00etatik 21:00etara barruko igerilekuak; eta 07:30etik 21:30ak arte izango dira zabalik sauna, gimnasioa eta kantxak.

IA 50.000 ERABILTZAILE

Udako denboraldiari dagokionez, 47.000 erabiltzaile inguru ibili dira. Honako datuak eman dizkigute: ekainean, 10.000 lagun inguru ibili dira; uztailean, 25.000 lagun; abuztuan, 10.000 (horietatik 341 Aretxabaletakoak) eta iraileko datuak oraindik batu barik dituzten arren, 2.000 lagun inguru ibili direla uste dute Musakolako langileek. Egunik jendetsuena, berriz, uztailean 13a izan zen. 1.500 pertsona izan ziren igerilekuan.

Bestelakoei begiratuta, jakinarazi digute bi sorosle eta erizain bat (DYAkoa) arduratu direla igerilekuaren zainketaz. Ezparen (tabanoak) eta erleen zistadez eta ebaki txikiez gain ez dela ezer larririk gertatu esan digute.

Domekan, arrasatearrak Arantzazura erromes

U.M.

Ama Birjinaren egunaren osteko domekan, Arrasatetik Arantzazura erromesaldia egingo dute. Oinez, autoz zein autobusez joango dira erromesak. Ohi bezala, Udal ordezkariak ere parte hartuko dute.

Guztiak ere Gesaltzan elkartuko dira, azkeneko kilometroak elkarrekin egiteko. Arantzazura iristen direnerako, harrera egiteko zain izango dituzte frantziskotarrak, 11:00etan. Eta gero, 12:00etan, meza nagusira joango dira guztiak.

Hantxe izango dira, baita ere, Arrasateko Udaleko ordezkariak. Meza, berriz, Arrasateko parroko Jena-ro Lekuonak esango du.

AUTOBUSEZ, AUTOZ EDO OINEZ

Erromesaldian parte hartzea nahi duenak, autobusez joateko, Ecuador bidaia agentzian saldu dituzte txartelak. Autobusa 08:30ean aterako da. Oinez joan gura dutenek, berriz, 06:30ean dute hitzordua, Kontzezinon. Handik, Bedoñatik zehar Larrinoraino iritsiko dira, Urkulura gero eta Urrexolara, ondoren. Gero guztiak elkartuko dira, Gesaltzan, 09:00etan.



Gazteendako txokoa izango da zapatu goizean eta arratsaldean.

Hiru egunez ospatuko dituzte jaiak Uribarri-Erguin auzoan

U.M.

Bihar hasi eta domekara arteko ekitaldiak antolatuko dituzte Uribarri-Erguin auzoan. Besteak beste, mariachiak izango dira zapatu gauean eta herri kirolak eta pilota partiduak domeka goizean.

Bihar, auzoko hildakoen aldeko meza esango dute 19:00etan, eta 22:30etik 03:00ak arte, Diskoteka Mugikorra izango da Udalpen.

Zapatuan, berriz, besteak beste, 11:00etatik 13:30ak arte puzgarriekin, kart auto txikiekin eta bes-

telakoekin gazteendako txokoa izango da Usaetxe plazan. Arratsaldeari dagokionez, gazteendako txokoa 16:00etatik 20:00ak arte zabalduko dute eta 17:00etan, Gorostiza pilotalekuan pilota partiduak jokatuko dituzte. Gauean, berriz, 23:00etatik 00:00ak arte *Mariachi Gariba* emanaldia izango da eta 00:00etan, dantzaldia.

Eta domekan, 11:00etan pilota partiduak jokatuko dituzte; 12:30ean, herri kirolak, bertsolariak eta trikitilariak izango dira, eta arratsaldean, Gorritiren animaliak eta Gau Alai taldea izango dira, besteak beste.

OKENDO ETA SANTA MARINAKO UDAL LUDOTEKAK

2005-2006 ikasturterako izena emateko epea: irailaren 12tik 30era.
Ludotekan bertan, ohiko ordutegian (17.00etatik 20.00etara)



Arrasateko Udala

■ Gazteria Saila

Txakurrak solte eramatearren, 300 eta 1.500 euro arteko isunak

U.M.

Joan den irailaren 1ean sartu zen indarrean animaliak babesten dituen araudia. Araudi horren barruan, besteak beste, isunak ere badira. Esaterako, txakurrak kalean solte eramatearren, 300 eta 1.500 euro arteko isuna ipin dezake Udalak. Udaltzainak arduratuko dira horrekin.

Hain justu ere, bost isun ipin ditzake Udalak. Bata, goian aipatu duguna: txakurra kalean kate edo uhal egokiarekin lotuta ez eramatearren, 300,51 eurotik hasi eta 1.502,53 eurora arteko isuna ipiniko dute. Isun horren arrazoia da legez animaliek ez diotela pertsonari oztopo egin behar; gainera, gertatu izan da solte dabilen txakur bat errepidera irten eta istripuren bat eragin izatea.

Beste isun bat da txakur gorotzak edo kakak kalean, jendea ibiltzen den lekuren batean batu barik uztearren. Kasu horretan, 30,5 eta 300,51 euro arteko isuna ipin diezaike udaltzainak animalia daramanari. Kontua da txakur kakekin lotuta jende askoren kexua jasotzen dutela Udalean eta egoerari aurre hartu gura diotela. Gainera, justu behar horretarako *pipican*-ak ipinita ditu Udalak Arrasaten, beraz, txakurrek ez dute zertan kalean ezer egin.



Besteak beste, txakur kakekin lotuta jende askoren kexua jasotzen dute Udalean.

ERROLDATZEA, DERRIGORREZKOA

Horrez gainera, Udalak gogora ekarri du derrigorrezkoa dela txakurra Udalean erroldatzea eta behar den moduan identifikatuta izatea. Hori egin ezean ere isuna ipin dezake; kasu horretan ere, 30 eta 300 euro artekoa izango da.

Eta beste bi isun ere ipin ditzake Udalak: txakurra ondo zaintzen ez duenari eta txakurra behar den moduan txertatzen ez duenari. Edozelan ere, bi kasu

horietan zailagoa dute legea hausten duen pertsona harrapatzea.

ANIMALIEK ESKUBIDEAK DITUZTELAKO

Gabonetan hasi zen Udala lantzen animalien eskubideen aldeko kanpaina. Oro har, animalia guztiengan eragiten du, legeak dioten moduan "animalia osok errespetatua izateko eskubidea du (...); animaliek eskubidea dute gizakiengandik arreta, zaintza eta babesa jasotzeko".

Abendura arteko egitaraua aurkeztu du Emakume Txokoak

U.M.

Ikastaroak, hitzaldiak, zinea, antzerki emanaldiak... antolatu ditu Emakume Txokoak urritik abendura arte. Besteak beste, ikastaroetan izena emateko epea irailaren 12tik 30era artekoa izango da.

Yoga, Tai Chia, Salsa, *Espresio* Dantza eta *Mugimendua*, Autoestimazioa lantzeko, *Krisialdiei*

Aurre Egiteko Baliabideak, ingelesa, *Etxeko Tresna Elektrikoen Erreparazioa* eta eskulanak. Horiexek dira Emakume Txokoak antolatu dituen ikastaro eta lantegiak. Guztiak ere emakumei zuzendutakoak dira. Halakoren batean parte hartzeko interesa duenak irailaren 12tik 30era arteko epea du izena emateko. 943 79 14 39 telefonora deitu behar da horretarako, edo Emakume Txokoan izena eman.

Bestelako ekimenak, berriz, (zinema, antzerkia, hitzaldiak...) herritar guztiei zuzenduta daude.

EGUAZTENERO, KATXALIN

Horrez guztiaz gainera, eguaztenero, 10:00etatik 12:00etara, Katxalin elkarteak (bularreko eta ginekologiako minbiziarengatik eragindako emakumeen elkarteak) arreta zerbitzua eskainiko du, interesa duen edozeinendako.



Arrasateko
euskalgintza

"Hizkuntzak dira pertsona horren kulturaren ispilu"

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Gonbidatu berezia dugu oraingo honetan autobiografiaren tartean. Berezia da, Nagasakitik etorritakoa izan arren, euskara ikasi eta euskaraz bizi delako. Euskara ikasteko gomendio txo batzuk ere eman dizkigu Chieko Hatak.

Hamabi urte daramatzat Arrasaten, itzulpengintzan lan egiten dut eta hasieratik jakin nuen euskara beharrezkoa izango nuela. Nire iritziz, tokian tokiko hizkuntza erabili behar da. Hona etorri aurretik Thailandian egon nintzen eta hara joan aurretik thailandiera ikasten ibili nintzen.

Nire ustez, bertako hizkuntzan aritzea kalitatezko ezaugarria da eta ez zait ondo iruditzen thailandiar edo japoniar batekin ingelesez aritzea, horrela ezin delako jendea benetan ezagutu, hizkuntzak direlako pertsona horren kulturaren ispilua. Bestalde, errespetu kontua ere iru-

ditzen zait eta ekologia kulturaren alde nago, kultur aniztasunaren alde nagoelako.

Itzulpenak egiten ditugu eta badakigu bakoitzari berean egin da hobeto saltzen direla produktuak, hori kalitatea da.

Hizkuntza bat ikasteko pazientzia behar da, denbora eskatzen duelako. Pixka bat sufritu egin behar da, gero asko gozatzeko. Esaterako, jendeak asko animatzen nau, euskara ikasi dudala ikusten duenean egiten didaten harreragatik. Benetan merezi du. Hemen bizi eta euskara ez dakien jendea euskara ikastera animatuko nuke nik, asko irabaziko dutelako.

"Nire ustez, bertako hizkuntzan aritzea kalitatezko ezaugarria da"

"Euskaraz ez dakiena euskara ikastera animatuko nuke, asko irabaziko duelako"



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 9**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 10**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 11**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 12**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- MARTITZENA, 13**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 14**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUENA, 15**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUBAKOITZA, 16**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Delak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelenehietik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelenehietik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZTA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Juan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
11:00 meza nagusia (euskaraz) | Domeka
10:00 (euskaraz) |
| 12:30 (elebiduna) | 12:30 (gaztelaniaz) |
| | Santa Teresa eliza |
| | Zapatua
20:00 San Isidron (euskaraz) |
| San Frantzisko eliza | Domeka
12:30 (gaztelaniaz) |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza |
| Domeka
09:00 (euskaraz) | Jaiegun bezpera eta zapatua |
| 10:00 (elebiduna) | 19:00 (gaztelaniaz) |
| 12:00 (elebiduna) | Domeka
11:00 (elebiduna) |
| 19:00 (elebiduna) | |
| Uribarri parrokia | |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | |
| Domeka
11:30 (elebiduna) | |

OHARRAK

URIBARRI-ERGUINGO JAIK
Bihartik, egubakoitza, domekara arte, Uribarri-Erguingo jaiak ospatuko dituzte. Egubakoitzean, suziriak, meza eta Diskoteka Mugikorra izango dira. Zapatuan, berriz, trikitalariekin hasiko dute eguna. Horren ostean, Txikitxokoa jarriko dute goiz eta arratsalde-, eta han, puzgarriak, kart auto txikiak eta ume eta gaztetxoendako bestelako jolasak izango dira. Arratsaldean, Gorostiza pilotalekuan pilota partiduak egingo dituzte (eguraldi txarra balego, Iturripen). Eguna bukatzeko, Mariatxi Garibai eta Kaixo taldeek emanaldiak egingo dituzte. Jaien azkeneko egunean, domekan, pilota partiduak, herri kirolak, Gorriti eta bere animalien ikuskizuna eta dantzaldia izango dira, besteak beste.

TXATXILIPURDIREN EGITARAU
Txatxilipurdik Uribarri-Erguingo jaietan egitarau propioa egin du. Egubakoitzean areto futbol txapelketa egingo dute 12 eta 16 urte bitartekoendako. Horren ostean, *Hitch* filma emango dute Usaetxeko plazan. Zapatuan, berriz, tortilla lehiaketa egingo dute Usaetxe plazan, 11:00etan. Izena emateko, jo Txatxilipurdira edo Gazte Bulegora.

AEDrenAGENDA

AED-KO BERTSO ESKOLAK
Laster jarriko dituzte abian berriro AEDko bertso eskolak, 2005-2006 ikasturtea hastear dago-eta. Interesa daukaten gazteek jo dezatela AED elkartera.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Gutxiago kutsatuz ekoizteko plana

Lantegietako ekoizpen prozesuak garbiago bihurtzeko egitasmoa abian jarri zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak. Enpresetan hainbat batzar egin zituzten. Baiezkoa eman zutenek, planaren barruan sartu, eta laguntza teknikoa eta ekonomikoa jasoko zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Loti"



— Gure txikixa lotixa da demasa ta eskerrak orri.


JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 6	13 °C
MAXIMOA Zapatua, 3	36 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	12 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 31	21 °C 16 °C 1,3 l/m ²
Eguena, 1	22 °C 18 °C — l/m ²
Egubakoitza, 2	33 °C 16 °C — l/m ²
Zapatua, 3	36 °C 16 °C — l/m ²
Domeka, 4	28 °C 19 °C 0,2 l/m ²
Astelehena, 5	20 °C 18 °C — l/m ²
Martitzena, 6	24 °C 13 °C 10,5 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Asteburu luze honetan, bat beharrea bi elkarrizketa bilduma eskainiko dizkizuegu

Adituek opor osteko sindromea-ri aurre egiteko oporraldian bizi izan ditugunak bat-batean ez ahazteko gomendatzen dute; eta guk kasu egin diegu. Horrela, bada, astean, San Andres auzoko parroko Jon Molinak Alemanian izan dela kontatu digu, eta Haritz Zubiate eta Jokin Orobengoa arrasatearrek, berriz, Panaman ikusi eta entzundakoak ekarri dizkigute 107.7ra. Azken horiek hegazkinez egin dute bidaia, eta beldurrik izan ez dutela esan ziguten. Guk, baina, oraindik

oporak hartzeko dituzuenekin gogoratu gara, eta, horregatik, hegazkin pilotuak trebatzen dituzten Sondikako Aerolinks eskolara jo dugu, eta han izan gara berriketan Egoitz Elortza irakaslearekin.

ZORRIAK ERE BERBAGAI

Inoren gustuko ez diren arren, buruz buru dabilta; zorriak dira eta udan ugaldu egiten dira. Azkoaga farmaziako Marian Zabartekin izan gara, parasito horiei aurre egiteko aholku bila.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- OSTIRALA**
10:00 **Elkarrizketa bilduma 1.** Jon Molina, Alemanian bidaia; Egoitz Elorz, Aerolinks konpainiak hegazkin pilotua eta irakaslea; Haritz Zubiate eta Jokin Orobengoa, Panamako bidaia; Lorategi tartean hortentsiak berbagai...
- ZAPATUA**
10:00 **Elkarrizketa bilduma 2.** Pedro Andrinua artzaina; Marian Zabarte, botikariarekin zorriak berbagai...
- DOMEKA**
10:00 **Elkarrizketa bilduma 1.**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
10:00-12:00 **UDA GIROAN**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Zorion agurren tartea (Esku hartzeko, 943 71 17 31).
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **UDA GIROAN (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Abuztuen egon da nehikue zerbitzu eta negozio zabalik herrixen?




PILAR ANSUATEGI
Langabie



JOSE LUIS LOPEZ
Langillie



NEREA ANTIXIA
Langillie



JOANES IGERERI
Ikaslie



IÑAKI URIARTE
Ikaslie



KRISTINA ARZA
Langillie

Ez. Gauza gehixauk egon biherko leukie zabalik: janari-dendak... Ogixe erostie be ez da samurre izen. Abuztu erdiko bi astiek die txarrenak. Holan turismue bultzaketie gatxa da.

Ez. Restaurante, taberna eta denda oso gutxi egon die zabalik. Ogixe erostie ez zan bape samurre. Dendak euren artien berba egin eta gutxieneko zerbitzu bat emun biherko leukie.

Ez. Eroskira jueten ez baza-
ra, gatx dauketzu. Hillebe-
te danien hamen bazauz,
eziñezkue da betiko den-
detan erostie. Hala eta be,
egixe da saltzailliek be opo-
rrak biher dauela.

Ez dakit. Kanpotarra naz,
baina julixuen igerri neuen
negoziuek ixten hasi ziela,
eta askoz giro txikiñae
euela. Sopelan negozio gehi-
xenak zabalik egoten die,
baiñe han turismue dau.

Baietz pentsetan dot, azken
baten Mondraguen udan ez
dalako ixte inor egoten.
Gutxieneko bat egon dala
pentsetan dot, eta erdiko bi
astietan gauza gehixenak
itxitte egotie normala da.

Ez. Aurten abuztu osue
hamen egin dou, eta ez da
ezer zabalik geldiketan.
Hona turistak etortzen
badie, ez daue ezer topau-
ko. Taberna gehixau zabal-
du biherko leukie.

USTEAKUSTE

'Jabilo'

Egubakoitzean, luzaro-
an borrokatzen ibili
ondoren, *Jabilo* joan
zitzagun. Azkeneko
urteak korrontearen kontra
egin behar izan zituen, baina ez
zuen inoiz irrifarrea, umore
beltz zirikatzailea, ausardia eta
animoa galdu.

Izugarrizko sormena
zeukan eta geldiezina zen. Hala
ezagutu genuen. Malezia
puntua ere bazeukan, baina
dena pakete berdinean zegoen,
jakina.

Ehunka proiektu asmatu
eta bete zituen; gehienak artea
berak ez luke hala deituko-,
probokazioa eta kritika
uztartuta. Gogoan dituzue,
besteak beste, berak eta beste
artista batek alde zaharrean
egin zituzten mural erraldoiak
-gazterixie, drogie eta puteri-
xie... adibidez?

Inork geldi ezin zezakeen
lurrikara hura koma sakon
baten sartu zen zorigaitzoko
gaixotasun-istripu baten erruz.
Hain burugogorra zen, etenga-
beko errehabilitazioa eginez, ia
begetal bat izatetik ibiltzera
arteko bidea egin zuela.

Tamalez, bizitzak gaintitu
ezineko oztopo gehiago jarri
zizkion, eta minbiziak gure
artetik aldenitu du.

Hori guztia ikusita, jakin
badakigu dugun aukera onena
dela oraina ahalik eta gehien
bizitzea, *Jabilo*-k berak egin
zuen moduan.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK LIBURUTEGIAREN ORDUTEGIARI Hainbat irakurlek
guregana jo dute kezka bat agertzeko. Alde batetik, oso ondo derit-
zote Udalak liburutegia abuztuan zabaldu izanari. "Abuztuan hain
aukera gutxi izanik, eskertzekoa da filmak, liburuak edo bestelako-
ak hartzeko aukera izatea". Bestalde, ez daude konforme iraileko lehe-
nengo bi asteetan Udalak ezarri duen ordutegiarekin. "Abuztuan goi-
zez bakarrik zabaltzea ulertzen dugu, baina irailean askok lana dau-
kagu, eta ezinezkoa daukagu goizean hara joatea".

ASTEKODATUA

4

**EGUNETAN EMANGO DUTE
'AUPA ETXEBESTE'**

Asier Altuna bergararrak eta
Telmo Esnal zarauztarrak egin
berri duten *Aupa Etxebeste* filma
lau egunean emango dute Amaia
Udal Antzokian. Bezperan Donos-
tiako Zinemaldian estreinatu
ondoren, Arrasatera ekarriko
dute hilaren 23an.

HERRITARRENBERBAK/ Nerea Makazaga



Kafearen zaporea

Berriz ere elkarrekin
egin dugu topo, kalee-
tan, kantoietan, taberna
zuloetan, baita egunka-
rietan ere. Herriak bere errit-
moa hartu du, eta erritmo
horretara moldatu gara, erraz
asko, uste baino errazago.

Aireari betiko usaia dario,
eta beraz, badakigu
egunek hasiera
berdina izango
dutela luzaroan.
Baina bizitakoaren
zaporea ezpainetan,
gustura asko itzuli
gara geurera; edo ez.

Agian, zuek ere
aurten bakarrik
bidaiatu duzue
atzerriko lagun
baten etxera, beste bizitza
batera, norbaiti lapurtu diozuen
bizitzaren jabe egitera. Zuen
hizkuntzari atsedean luze bat
eman diozue, berri bati aukera
eskaini, eta ahoskatzeetan
trakets eta alai aritu zarete.
Zoritxarrez, zuen buruaren
aurkezpen mugatu bat egiteaz
konforme azaldu zarete, izatea-
ren kontzeptua tokian tokiko
lurraldeetan ezberdin hazten
den errealitate bat dela ulertuz.
Begiak leiho, teiletan

pausatuko zenuten begirada,
paretetako zirrikitueta, trafik
zeinuen kaligrafia zirikatzaile-
tan, lagun berrien begiradetan.
Eta begiradak, ere, kode ezberdi-
netan deskodetu behar direla,
garrantzitsua dela kode berri
baten jabe egitea, begiak ez
direla uste genituen leihoak...

**"Heldu da
garaia
oporretatik
buelatzeko, eta
jada ez dakizu
buelatu nahi
zenuen"**

eta bat-batean teiloi
begira hartzen duzu
atseden. Mugitzen ez
denak soilik eskain-
tzen dizu mugituko
ez denaren baieztape-
na. Zehaztasun
faltan, ironia leun-
dua, espezia gehiegi
bakoitza dastatzeko...
Eta faltan bota duzue
ulertzen duzuen eta

ulertzen zaituztena; ezagutzen
duzuen eta ezagutzen zaituzte-
na. Hitzak, ekintzak, ohiturak...
kulturari tinko errotuak daude
babesguneak dira, eta hasieran
ezin ulertu. Bestalde, gozatu
duzu zurea ez den bizitza, ikasi
duzu egunak aurrera joan ahala
gozaten, modu ezberdin baten.

Heldu da garaia bueltatzeko,
eta jada ez dakizu bueltatu nahi
zenuen... kafe bat eskatu berri
duzu, baina dastatzean ez zaude
ziur betiko kafe berdina den.

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA

Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA

Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA

Itsaso Berezibar
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA

Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA

Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA

55-1124/88

ISSN

0214-4654

TIRADA

7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



ASTELEHENENKO GOIENKARIA

Korrika bakarrik ez, Arrasate-Arrasate mendi lasterketa oinez ere egin ahal izango da, 09:00etan irtenda.

KILOMETROAK 05/Kilometroen barruan, kirol hitzorduak

Ziklokilometroak eta mendi lasterketa, domekan

XABIER URTZELAI

Kilometroak jaiaren kontura gura beste izerdi botako dute domekan egingo dituzten kirol ekitaldietan esku hartzen dutenek. Batetik, Ziklokilometroak izenarekin, errepideko bizikletarekin irteera egingo dute. Bestetik, Arrasate-Arrasate mendi lasterketa egingo dute.

Bi hitzordu horiek domeka goizero egin dituzte, baina gogoratu Gatzagan Plater Tiro Txapelketa egingo dutela; Gatzagako *Urtatik* herri aldizkarian aurkituko duzue txapelketa horren gaineko informazio guztia.

ARRASATE-ARRASATE LASTERKETA

10:00etan hasiko dute mendiko lasterketa hori, Monterronen. Izena www.kilometroak.com webgunean eman ahal izango duzue.

Bestela, lasterketa baino lehenago ere egongo da izena emateko aukera. Lasterketa 10:00etan hasiko bada ere, ordubete lehenago ibilbidea oinez egin gura dutenak irtengo dira. Beste mendiko lasterketa batzuekin alderatuta, Arrasatekoa ez da batere gaitza izango, eta herritarrek esku hartzeko propio prestatu dute. Ibilbideak hamar kilometro izango ditu: Monterrondik Musakolara joango dira, Gernika Oinezkoen Zumarditik, eta

Bizikletan itzulua egiteko derrigorrezkoa izango da kaskoa eramatea

handik egingo dute gora, Zaburdi baserrira, Olorra, eta handik Hilerrira. San Kristobaldik Monterronera jaitsiko dira, eta hantxe egongo da helmuga.

ZIKLOKILOMETROAK

Domeka goizean baita ere, 09:00etan, Eroskin egin dute errepideko bizikletan itzuli polita emateko hitzordua. Mendiko lasterketan moduan, parte-hartzaileek 10 euro ordaindu beharoko dituzte, eta derrigorrezkoa izango da kaskoa eramatea eta baita federatuta egotea ere.

Ibilbideari dagokionez, txirrindulariek 95 kilometro egingo dituzte. Arlaban igo eta Kurtzetatik jaitsiko dira. Arrasateko Sportland dendaren aurrean egongo da jatekoa eta edatekoa, eta handik egingo dute Oñati aldera, Udana igo eta Legazpitik igarota itzulera Deskarga aldeetik egiteko.

Mondra izan ezik, gainontzeko taldeak aurre-denboraldian

X.U.

Arrasateko eskubalo, saskibalo eta errugbi taldeak aurre-denboraldian murgilduta daude. Aste barruan entrenatzearekin batera, asteburuak lagun arteko norgehiagokak egiteko aprobeztatzen dituzte.

Arrasate Errugbi Taldea abuztuko azken astean hasi zen entrenatzen. Joan den astean egin zuten urtero klubeko taldeen artean egin duten lagun arteko norgehiagoka, eta oraingo asteburuan Elizondora joango dira, Baztan Rugby taldearen kontra jokatzera.

Liga Txapelketari dagokionez, Arrasatekoek oraindik ez dakite Estatuko Lehen Mailan jokatu dute. Taldeak mailari eutsi zion, baina Gipuzkoako Txapelketan jokatu behar zuen taldeak ez zituen gutxienezko norgehiagokak jokatu, eta baliteke talde nagusiak kategoria galtzea. Hori horrela balitz, Euskadiko Txapelketan jokatu luke Arrasateko. Horrekin batera, klubetik ibarreko gazteak anima-

tu gura dituzte kirol hori ezagutu eta Arrasatearekin jokatzeko. ART taldeak zabalik ditu ateak.

SASKIBALOIAN, GOIZ

Inoiz baino lehenago hasi dira Ointxe Arrasate Saskibalo taldekoak entrenatzen. Talde nagusiarri dagokionez, orain arte Gorka Zurututzaren mutilek denboraldi txukunak egin dituzte, baina kosta egiten zaie gura duten erritmoan jokatzera, eta horretarako Gabonak arte itxaron beharrean, aurtengo goiz hasi dira lanean.

Dagoeneko lagun arteko hainbat norgehiagoka jokatu dituzte, eta baita Zarauzko Launakako Saskibalo Txapelketa irabazi ere. Irailaren 17an hasiko duten Txapelketarako Zurututzak hainbat jokalar berri izango ditu eskura: Arrasateko harrobitik atera diren Aitor Zeziaga eta Beñat Barbarena eta Bergarako Antxon Hernandez gazteak.

Azkenik, Arrasate Eskubalo Taldekoek ere hilabeteko aurre-denboraldia egingo dute, urrian hasiko dute eta Liga.



Errugbikoak denboraldia hasteko gertu.

LABUR

Uribarri-Erguingo jaien barruan, pilota partiduak egingo dituzte zapatu eta domekan

Zapatu arratsaldean (17:00etan) alebin, infantil eta kadete mailako pilotariak jokatu dute. Domeka goizean (11:00etan), berriz, amateur mailako bi partidu izango dira. Partidu nagusia Natalioren eta Fernandoren arteko lehia izango da.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE




Lilura

OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa. Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



Euskal aktore ezagunek esku hartu dute komediaren ikuspegitik landutako drama horretan.

IRUSOIN/ALOKATU

IKUSKIZUNAK / Filmez gain, antzerkia, dantza eta bestelakoak, Amaia antzokian

'Aupa Etxebeste' emango dute, labetik irten berri

IKER BĀRANDIARAN

Irailarekin batera, Udaleko Kultura Saila hasi da ekitaldiak antolatzen. Datorren astetik hilabete bukaera arte, besteak beste, film emanaldiak, dantza eta antzerki ikuskizuna eta erakusketak egingo dituzte. Horien artean, *Aupa Etxebeste* filma estreinatuko dute.

Film luzeko protagonistak honako hauek dira: Elena Irureta, Pako Sagarzazu, Ramon Agirre eta Iban Garate.

Komediaren ikuspegitik landutako drama egin dute. Diruz ondo dabilen familia baten istorioa kontatzen dute. Halako batean, familia ezingo da oporretan joan, eta ingurukoei Marbellara doazela esan arren, etxean geldituko dira ezkutatuta.

Hilaren bukaeran, *Semen, una historia de amor* komedia emango dute. Hector eta Ernesto Alterio aita-eme aktore ezagunak dira protagonistak. Horrez gain, izango da beste film emanaldirik.

Antzerki eta dantza ikuskizuna, berriz, Kukai eta Tanttaka taldeen eskutik etorriko da. Hilaren 18an, *Otehitzari biraka* lana eskainiko dute.

Zientzia fikzioa, komedia, drama eta Asiaren eta mendiaren gaineko filmak ikusgai

Oteizaren lanean oinarritutako dantza eta antzerki ikuskizuna egingo dute hilaren 18an

Kultura egitaraua datorren egubakoitzean, hilaren 16an, hasiko da. Egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean *La guerra de los mundos* lana emango dute. Steven Spielberg zuzendu du (*Tiburón, Salvar al soldado Ryan...*) zientzia fikziozko film hori, eta 116 minutu irauten du. Protagonista Tom Cruise da (*El último samurái, Eyes wide shut...*).

IA ESTREINALDI MUNDIALA

Hilaren 23an, 24an, 25ean eta 26an, *Aupa Etxebeste* filma estreinatuko dute Arrasaten. Berez, hilaren 22an, Donostiako Zinemaldian emango dute lehenengo aldiz, eta hurrengo egunean hain justu Arrasatera ekarriko dute.

Aupa Etxebeste Asier Altuna bergararraren eta Telmo Esnal zarauztarraren lehenengo film luzea da, eta euskaraz egin dute. Kanpoko irudi gehienak Bergaran grabatu dituzte, eta barrukoak arrantzale kofradia batek utzitako hozkailu erraldoi baten.

Altunak eta Esnalek umore beltzeko hainbat film labur egin dituzte: *Txotx, Topeka* eta *40 ezetz*, besteak beste.

LABUR

Udaleko Gazte Sailak perkusio ikastaroa egingo du urritik abendura bitartean

Ohikoa den moduan, Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatzen dihardu urtean zehar. Uztaileko kanpaina zabalean igaro ostean, bada bestelakorik: urriaren 10etik abenduaren 19ra bitartean perkusio ikastaroa egingo dute herrian. Irakaslea Iñaki Bruña arrasatearra izango da. Interesatuok, jo Gazte Bulegora.

Datorren egunean zabalduko dituzte Santa Marinako eta Okendoko ludotekak

Txatxilipurdik aditzera eman duenez, datorren egunean, hilaren 15ean, zabalduko dituzte elkarte horrek kudeatzen dituen bi ludotekak. Ordutegia betikoa izango da; hau da, 17:00etatik 20:00etara.

Interesatuak ludoteketara edo elkartearen bulegora (Pablo Urangea) jo beharko dute izena emateko esku-orriak hartuz.

AEDko Bertso Eskola indartzeko asmotan dabilta

I.B.

AEDk laster jarriko du abian Bertso Eskola. Joan den ikasturteko ildo jarraitu gura dute. Ahal den heinean, iazko taldea indartu egin gura dute eta gazteagoen beste bat sortu. AEDra jo beharko dute.

Joan den ikasturtean sortu zuten Leintzeko bertso eskola. Horren bidez, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan bertso eskolak sortu zituzten euskara elkarteek.

Arrasaten AED arduratzen da horretaz, eta pozik dago iaz talde bat osatu zuelako. Aurten, 10 eta 15 urte bitarteko talde hori indartu egin gura dute, eta txikiagoen beste talde bat sortzeko ahalegina egingo dute.

EGUNAK ETA ORDUTEGIA, ERABAKITZEAREN

Joan den ikasturtean, eskolak egubakoitzean eman zituzten, AEDko bertso eskolan, 17:00etan. Oraingoan, berriz, interesatuak erabakiko dute noiz elkartu. AEDn jasoko duzue informazio gehiago.



AEDko Bertso Eskolako lagunek hainbat ekitalditan esku hartu dute.

Uarkape jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.

Maritxu egunerako dena prest! Ondo pasatu!!

Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

MEHER

Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.



BOTEPRONTUEN

Andrea Larrañaga

KIROPRAKTIKA ZENTROA

XABIER URTZELAI

Gerueu eta jente gehixauk ezaguketan dau kiropraktikie, baiñe hiru urtien AEBetan ikesten ibilli dan Andrea Larrañagak azalduko dusku hobeto, horretan egitten dau-eta lan. Badie hiru urte Mondraguen lanien dabilela, Erdiko kalien.

Esandakue, azaldu kiropraktikie ze dan.

Kiropraktikan bizkarrezurrekin egitten dou lan, bertan daukou sistema nerbiosue, eta hori da geure gorputzeko organuen arteko konexiñue. Eta geuk gure doune da konexiño hori ahalik eta onduen egotie. Kontue da jaixoten garetik hiltzen garenera arte tensiño mordue eukitten doule: fisikuek, kimikuek, emozionalak... Eta, bizkarrezurre izeten da horreik tensiño horreik sufriduten dauenak. Hori dala-eta, bertebrak mobidu egitten die, eta gorputzek igerrri egitten dau hori.

Eta zer dala-eta ikesi dozu hori?

Beti gure izen dot bestioi lagunketako zerbaitetan egin lan. Lehen mediko izen gure neuen, baiñe Donostian dauen kiropraktiko bat ezagutute animau nitzen hori ikestera. Harek esan eusten ze egin biher neuen, eta gaur arte.

Kanpora juen biher izen dozu ikestera.

Bai, hamen ez dauelako kiropraktikie ikesterik. Madrillera juen nitzen lelengo, eta San Frantziskora gero, espezializetan.

Zelan egitten dozue lan?

Oso inportantie izeten da pazientien historixie ezaguketie. Gero, hainbat prueba egitten dou: posturak, sistema nerbiosuen tensiñue... Eta, inportantie da subluxaziñuek edo lekutik mobidute dauzen bertebrak nun daukon ikustie, gero zuzendu ahal izeteko.

Hirugarren Munduko jentiekien be egitten dozue lan.

Bai, biaje batzuk egin dou. Birritan egon naz El Salvadorren, San Frantziskon lan egitten dauen kiropraktiko baten bittar-



X.U.

"Sistema nerbiosue ondo egoteko bizkarrezurrek egon biher dau ondo; hori da geure ardurie"

tez. Hari okurridu jakon El Salvadorra juetie, eta harek bieltetan dau urtero talde bat, jentiekien lan egittera. Juen dan urtien Indian egon gitzen, Calcutan. Tere-sako Aman zentruen ibilli gitzen lanien, eta baitte kaleko jentiekien be. Eta, Tobagon (Hego Amerika) egon gare aurten.

Dentistiek hagiñek garbiketako esaten dauen moduen, kiropraktikuek...

Normalien gaztetatik jueten gare dentistiengana, eta kiropraktikuengana be umetatik juen biherko geuke, tripatik urtetie izeten da-eta bizitzan eukitten dou nelengo tensiño momentue. Orduen komeni da ikustie bertebrak danak

"Tensiño haundixe eukiz gero, gorputzek galdu egitten dau osaketako daukon kapazidatie"

ondo dauzen, eta ordutik hasitte, bizi danielen egittie jarraipena. Horrekin batera, bizkarrai mobimentue emutie, posturak zainketie, ondo hidratetie, estresa zainketie...

Ze da zuon laneko gauza txarrena?

Legislaute ez dauen profesifñue dala. Euskal Herrixen zortzi kiropraktiko inguru egongo gare, eta Estatuan 150 inguru. AEBetan eta beste leku askotan geure profesifñue rekonozidute dau, baiñe hamen ondiokan ez, eta horrek ez dau mesederik egitten.

Eta onena?

Jentiei on egitten dutzezule ikustie. Hori gauza haundixe da.

NIREBIDAIAHURA/ Imanol Soriano

Eskoziara / 2005eko udan.

Raul Perrino Edinburgon lanean dabilela aprobetxatuta, Oxel, Oier, Iban eta Imanol Eskozia aldean ibili dira abuztuan, bisitan. Raulek lanean jai eskatu, eta Eskozian barrena kilometro mordoia egin dituzte: "Edinburgora iritsi, eta hurrengo egunerako errepidean geunden", esan digu Imanolek. Automobila alokatu eta Ness lakurako bidea hartu zuten: "Munstro bila joan ginera hara (Barre), baina egia esateko, badaude Ness lakua baino leku politagoak. Arratsalde osoa behar izan genuen lakuari itzulia emateko, 37 kilometro ditu-eta. Aterpetxeren batean gura genuen lo egin, baina bete-beteta zegoen guztia. Gainera, nahiz eta oso leku turistikoa izan, berandu iritsi eta denda guztiak itxita zeuden. Azkenean, zortzi kilometrora dagoen Inverness herrira joan ginera, eta hango aterpetxe batean egin genuen lo".

Hurrengo egunean Highlands-etarako bidea hartu zuten, baina ez zeukaten gura beste denbora: "Astebetean gauza asko gura genituen ikusi, baina dena ezin... Highlands-etan sekulako parajeak daude; esplotatu gabeko lekua da, eta horregatik ez du ikusgarritasunik galdu: mendiak, amildegia..."

Eskoziako mendebaldeko kostalderantz egin zuten gero: "Ullapool-go aterpetxeetan ere ez genuen lo egiteko tokirik aurkitu, eta azkenean bi kanpin denda erosi genituen. Ezin esan lo ondo egin genuenik, zomorro mordoia zeudelako, eta nahiz eta euli eta bestelakoak uxatzeko kremak eman, jan egin gintuzten".

Eta, Ullapool-dik Skye uhartera: "Zubi bat dago hara joateko, ez dago ferryrik hartu beharrik, baina errepide kaskarrak daude han. Eta, han ere amildegia eta mendi ikusgarri gehiago".



"Ness lakua baino leku politagoak ikusi genituen"

"Arazo handiak izan ditugu aterpetxeetan lo egiteko"

XABIER URTZELAI



Arrasateko koadrila, Edinburgon.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Expres
kafetegia

- Plater konbinatuak
- Otartekoak
- Olagarroa galiziar erara

Tel: 657.793.707
Maalako Errabala 8, beheaPando
ErrotuloakGipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)

Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsagarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak



GAZTETXOENEZ ERE EZ DIRA AHAZTUKO ERGUINGO JAIETAN

Txatxilipurdiren eskutik aurten ere egitarau berezia izango dute gaztetxoek Erguin auzoko jaietan. Kirolak, zine emanaldia eta sukaldaritza; guztien gustuetan pentsatu dute, duda barik.

Egubakoitz arratsaldean hasiko dira 12 eta 16 urtera bitartekoan futbito txapelketarekin, eta gauean, atsedean hartzeko, *Hitch* filmaren emanaldia, 21:30ean, Usaetxeko plazan. Zapatuan, ostera, tortilla lehiaketa egingo dute, goizeko hamaiketan hasita.



ITALIAN ERE MAKINA BAT ENBAXADORE IZAN DITUGU UDAKO OPORRETAN AURTEN

Uda sasoia dagoeneko amaitzear dela, argazki eta postalak ditugu eguzkipean igarotako egunen kontsolamendua. Erredakzioan ere, inbidia eman edo ideiak eman guran, astero iristen zaizkigu arrasatearren

postalak. Antza, aurtengo oporraldian Italia izan da askoren aukera. Dolomitetatik idatzi digute, adibidez, Itziar Arrizabalaga eta Peru eta Itsaso Aranak. Azken horiek Venezia inguruan ere gogoratu ziren gutaz.



OPORRETAN HAN ZEBILTZALA, LAS VEGASEN: 'BAI GURA DUT'

Elizako organo zaharraren eztei-martxa baino gurago izan dituzte Elvisen maitasun kantuak Olatzek eta Igorrek. Ameriketako Estatu Batuetan oporretan, Los Angeles eta San Frantzisko aldean ibili ostean Las Vegasen zeudela, ezkontzea bururatu zitzaion bikoteari, eta argazkian ikusten den bezala, piura horiekin egin zuten, gainera. Pamela buruan eta alkandora eder horrekin, elkarri baiezkota esan, eta modu ezohiko honetan ospatu zuten egun berezia Las Vegasen. Ez dakigu Elvis bera ere ikusi ahal izan zuten edo ez. Askok han bizirik jarraitzen duela diote, baina ziur asma dezakegun gauza bakarra da auresku bat baino gehiago rock-and-rolla izan zela ezteietako soinu banda. Familiakoen partetik, zorionak, bihotz-bihotzez!



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



BELEN CARRASCAL

Munduko atleta beteranoek esku hartu zuten Donostiako txapelketan.

PROTESTA/ Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketari bizkarra eman zioten

Ibarreko erretiratuek ez zuten lagundu txapelketan

IKER BARANDIARAN

Uda baino askoz lehenago, Foru Aldundiak Gipuzkoako erretiratuengana jo zuen laguntza eske: abuztuan Donostian egin beharreko Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketan boluntario lanak egitea. Ibarreko erretiratuek ezetza eman zioten, eta ez dute erabakia aldatu.

Ibarreko erretiratuak gogor dabil-tza eta ez dituzte iraganean egin-dako eskaerak ahaztu gura izan. Aspaldi Aldundiari aditzera eman zioten Debagoieneko erretiratuak beste edozein eskualdetakoak baino askoz txarrago daudela; hau da, ez dituztela eskubide berak bermatzen. Batez ere, garraioa zuten berbagai. Kontua da Gipuzkoako

gainontzeko erretiratuek garraio publikoa erabiltzeko orduan deskontu handiak dituztela. Ibar honetakoek, berriz, ez daukate inolako beherapenik.

Erretiratuen ordezkariak batu izan dira Aldundikoekin, baina "ez dugu funtsezko erantzunik jaso. Aspertuta gaude itxarroteaz, ez dagoelako inolako borondaterik", azaldu digute.

Erretiratuak oso haserre daude garraio publikoan ez dutelako beherapenik

Arrazoi horregatik, Aldundiak euren laguntza eske jo duen honetan ezetz borobila eman diote. Ibarrean dauden hamar erretiratuen elkarteetatik batek bakarrik -Bergarakoa- esku hartu du boluntario moduan abuztuan egin den txapelketan. Gainontzeko bederatziek ezetz borobila eman diote.

"Gure arazoa konpontzen ez duten bitartean, ez daitezela guregana laguntza eske etorri", azaldu digute erretiratuek.

ERRETIRATUEN MARTXARA, BAI

Bestalde, orain dela gutxi, Gipuzkoako Erretiratuen Martxa egin dute Donostian, eta ibarreko 120 lagunek esku hartu zuten. "Martxa hori erretiratuek antolatatu dugu, eta gustura asko esku hartu genuen, urtero moduan".

Oporretatik bueltan, ikastaroak eta bidaiak gehiago

I.B.

Askoren oporrak bukatu dira, eta hori zelanbait igartzen da erretiratuen elkarteetan. Izan ere, hainbat ikastaro iragarri dituzte ikasturte honetarako. Bestalde, batzuk etorri arren, beste batzuk oporretara doaz.

Lanera bueltatu eta eguneroko erritmoa hartu berri dugun honetan, Abaroako lagunak Malgrat de Marrera joateko puntuan daude. Zapatuan bi autobus eramango dituzte -101 lagun-. Hilaren 24ra arte ibiliko dira Katalunia aldean.

Bestalde, Uribarriko elkarteak hainbat ikastaro antolatatu ditu

ikasturte honetarako. Honako hauek dira auzotarrei egin dizkieten eskaintzak: ehozeria, gurutze-puntua, kakorratza, margolaritza, dantza eta ariketa fisikoa. Irail erdialdean hasiko dira. Hor-taz, interesatuek lehenbailehen jo beharko dute elkarteko bulegora.

ASTURIASERA BIDAIA

Uribarrikoek Asturiasera txangoa antolatu dute. Urriaren 10ean irtengo dira, eta bost egunetan Covadonga, Cudillero, Cangas de Onis, Gijon, Aviles eta beste ikusiko dituzte. Interesatuek 287 euro ordaindu beharko dituzte. Eta izena emateko azkeneko eguna hilaren 24a da.



UBANE MADERA

Azkenean hasi dira Musakolako erretiratuak deseatzzen zeuden lanak.

Musakolako erretiratuen elkarteko lanak hasita daude

I.B.

Astelehen honetan hasi dituzte Musakolako erretiratuen elkarte berria egokitze lanak. San Isidro elizaren atzealdean kokatuta dago, eta egun erabiltzen dutena ordezkatu du.

Aspaldiko kontua da Musakolako erretiratuen elkarte txiki-gia dela auzoan dauden erabiltzaile guztiendako. Horregatik, aspaldi eskatu zuten lokal berri bat egi-

tea. Udalak onartu egin zuen eska- era eta proiektu bat idatzi zuen berau San Isidro elizaren atzealdean kokatzeko.

Lanek atzerapena izan dute, baina joan den astelehenean hasi zituzten. Helburua da eraikina eraberritzea eta, batez ere, teilatua eta leihoak aldatzea. Eraiki-nari antzeman dioten gabezia handiena da hotzari eta hezetasunari aurre egiteko beharra zegoela. Udalak zehaztu du lau hilabete beharko dituztela lan guztiak bukatzeko.

Maritxu egunean
zoragarri egon zaitezten...

Lore

Olarte kalea 10 Tel.: 943 79 52 50
ARRASATE

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa
- Solariuma
- Makillaje

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

Metal aroztegia, P.V.C.
eta aroztegia
Lekuz aldatu gara!

Goiena industrialdean gaude, 11. pabilioian.
Tel./Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.

Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein auzotan dago argazkian ikusten duzuen eskultura hori?
Arrastoa: eskola baten ondo-ondoan dago.

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOIA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Betelu ura
1,5 litroko botila

0,24€ 40 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AXUN ALTUNArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Axun!
Galderen erantzun zuzena:
Santa Teresa Agerre kalean.

ARRASATEKOHISTORIA

Uribarriko dohatsu Klara Ezkurra, gogoan

ARRASATE PRESS

Oraingo asteburuan jaiak ospatuko dituzte uribarritarrek; eta jakinarazi digutenez, auzoko Klara Ezkurra Urrutia beatoaren omenezkoak dira aurtengo jaiak. Hori dela eta, emakume haren gaineko historia gogora ekarriko dugu tarte honetan.

2001eko martxoan izendatu zuten Klara Ezkurra dohatsu. Joan Paulo II. aita santuak aitortu zuen beato, 25.000 lagunengana aurrean ospatutako zeremonia batean. Modu horretan, Arrasateko lehenengo emakumezko dohatsua bilakatu zen. Oro har, herriko bigarren dohatsua da, lehenengoa Jose Maria Bengoa izanik.

Dohatsu izendatu eta hilabetera, Uribarriko parrokiak ospakizuna egin zuen; besteak beste, Gipuzkoako gotzaina etorri zen Arrasatera.

ERGUIN BASERRIKO ALABA

Klara Ezkurra Urrutia 1896ko abuztuaren 17an jaio zen, Uribarriko Erguin baserrian. Sei anai-arrebatatik gazteena zen. Txiki-txikitatik erakutsi zuen Jainkoarenganako grina eta erlijioarekiko maitasuna. Kate-



Txiki-txikitatik erakutsi zuen Klara Ezkurra Jainkoarenganako grina eta erlijioarekiko maitasuna.

ARTXIBOA

kista lanean jardun zuen; batik bat, Lehenengo Jaunartzea egiteko prestatzen zituen umeak.

Hasiera batean, Mesedeeta-koaren ordenakoa izan gura zuen Klara Ezkurra; hala ere, azkenean karitatearen karmeldar egin zen. Gasteizen egin zen nobizia,

*Ezkongaia utzi
behar izanek ekarri
zizkion zalantza
gehienak nobizia
egin zenean*

1920ko martxoaren 14an. Ezkongai- gaia zuen, eta hura utzi beharrak ekarri zizkion zalantza gehienak.

Gasteiztik Valentziara bidali zuten, eta hango Miserikordiaren Etxea komentuan bizi izan zen harrez geroztik. Lehenengo bete-behar moduan, umeak eta per-

tsona nagusiak zaintzea egokitu zitzaion. Lan horri aurre egiteko, goizeko hiruretan jaikitzen zen Klara, egunero-egunero.

Baina Espainiako Gerra Klara Ezkurraren hondamena izan zen. Beste erlijioso eta erlijio-etxeri moduan, Miserikordiaren Etxeari ezustean eraso egin zioten eta moja guztiak bahitu eta-fusilatu zituzten. 1936ko azaroaren 24a zen.

BIDE LUZEA, DOHATSU AITORTZEA

Datei begiratu gero, ikusten denez urte mordo pasatu ziren Klara Ezkurra dohatsu aitortu zuten arte. 1936an hil zuten uribarritarra, eta beatifikazio prozesua 1952an hasi zuen Valentziako gotzaindegiak.

Izan ere, norbait beato aitortzeko, bateren batek prozesua ireki behar izaten du. Idatzia aurkeztu behar dute, eta pertsona horren gaineko nondik norako guztiak zehaztasun osoarekin aurkeztu. Gero, Erromara bideratzen dute eskakizuna, eta han, zenbait proba gainditu behar ditu. Azken batean, epaiketa moduko bat da: badago *debruaren* papera egiten duen alde bat, eta horrek dohatsu izateko proposatutako pertsonaren alde ezkor guztiak nabarmendu behar ditu.

2005-2006 ikasturtea

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza 2 (Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 Arrasate

Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Fax: 943 79 91 43

E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

Bulego ordutegia

Goizean: 10:00-13:00
Arratsaldean: 15:00-18:30

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4

20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62

E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10

20540 Eskoriatza

Tel.: 943 79 21 68

E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Bulego ordutegia

Goizean: 09:00-13:00
Arratsaldean: 15:00-19:00

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?



Mibel González
Postaria

Bianca Daubagna
Jaurituzako langilea

David Arnaiz
Ikaslea

Rosangela De Oliveira
Zaharberritzailea

Magdalena Cuesta
Ertzaina

Jabier Lejarzegi
Ereiritua

Paki Mendizabal
Etxekoandrea

Cristina Rodríguez
Langabea

matrikula **zabalik**
irailaren 1etik aurrera

UDAL
EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

HABEREN ERAGUNTZAK

HIZKUNTZAK DENONTZAT

● haur, gazte, helduentzat

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak
(ingeleza, euskara, hizkuntza, matematika...)

- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Multimedia sistema
- Mediateka dohan
- Bezeroei zerbitzua emateko estraneta
- Ikaslearen banan-banako jarraipena
- Ordenagailu gela eta internet
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

Matrikula epea zabalik

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Arrasate - Gipuzkoa
Avda. de Álava, 4 • Tel.: 943 71 20 55
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com

bai & by

frantsesa

txinera

alemana

ingeleza

italiera

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Eguena / 2005eko irailaren 8a

392. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: 55378/94

Ibarreko 200 ume elkartuko dira domekan Haur Dantzarien Eguna ospatzeko

MIRARI ALTUBE

Domekan, irailak 11, ospatuko dute Haur Dantzarien Eguna. Ohi baino lehenago dator hitzordua —iraileko hirugarren domekan ospatu izan da—, baina ibarreko dantzariak ez dute hutsik egingo. Ia 200 ume elkartuko dira kaleetan jai giroa sortuz.

Euskal dantzak gustuko dituenak hutsik egin behar ez duen hitzordua dauka domekan. Arrasate, Bergara, Oñati eta Antzuolatik etorritako neska-mutikoek dantza erakustaldi bikaina eskainiko dute gure kaleetan aretxabaletarrekin batera.

IBARREKO SEI TALDE

Aurten Soraluzeke taldearen falta sumatuko du batek baino gehiagok, ezin izango dira-eta etorri. Ibarreko taldeak hemen izango dira: Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu, Bergarako Gazte Alai, Antzuolako Oin Arin, Oñatiko Oñatz eta zela ez, Aretxabaletako Loramendi Dantza Taldea.

Urteroko egitaraua eskainiko diete herritarrei. Hala, 10:30ean elkartuko dira guztiak Herriko Plazan, dantzan hasi aurretik mokadutxoak jateko. Ondoren kalejira egingo dute eta lau gunetan



Herriko lau gunetan (Herriko Plazan, Ilargi plazan, Mitarte plazan eta Durana kalean) egingo dituzte ikuskizunak dantzariak.

banatuko dira dantzan egiteko: Herriko Plazan, Ilargi plazan, Durana kalean eta Mitarte plazan. 13:30ean bazkaltzera joango dira neska-mutiko zein laguntzaileak.

Arratsaldeko saioa 17:00etan hasiko da, eta alardea egingo dute Herriko Plazan. Neskek Sagar dantza eta Makila Txiki egingo dituz-

te dantzan, eta mutilek Txankarrankoa eta Banakoa. Bukatzeko Txulalai, Luzaideko Esku dantza, San Petit eta Makila Txikiak eskainiko dituzte guztiak batera.

FAMILIAK BEHAR DITUZTE

Loramendi Dantza Taldeak herritarren laguntza behar du etorriko

diren dantzari eta laguntzaileei bazkaltzen emateko. Fitxak banatu dituzte etxez etxe betetzeko eta ondoren Eroski dendetara edo Gurea tabernara eraman behar dira. Gaur da azken eguna fitxok eramateko, hortaz, bizkor ibil dadila jendea. Urtetik urtera gero eta dantzari gehiagok bazkaltzen du

Arrasate, Oñati, Bergara eta Antzuolatik etorriko dira herrikoekin elkartzeko

Kalejira egin ostean lau gunetan banatuko dira neska-mutikoak dantzan egiteko

Loramendi Dantza Taldeak herritarren laguntza behar du dantzari bazu emateko

gastronomi elkarteetan eta Loramendiko kideek herritarrei eskatera berezia egin gura diete dantzariak etxeetan har ditzaten.

Gaur hasi eta domekara bitartean Agorreko Andramaixak Areantzan

M.A.

Gaur, eguena, hasi eta domekara bitartean jaiak dituzte Areantza auzoan. Egubakoitzeko afaria eta jolasak izango dira Agorreko Andramaixetako protagonista, Martin Kabarrixa ahaztu barik, noski.

Gaur, irailak 8, Andre Mariaren Natibitate edo jaiotza eguna ospatzen dute Areantza auzoan. Gaur hasiko dituzte jaiak Ama Birjina-

ri otoitz eginaz, eta bihar Martin Kabarrixa jarriko dute.

EGITARAU DOTOREA

Gaur, 19:00etan meza esango dute eta ondoren mokadutxoak eskaini. Bihar, egubakoitza, Martin Kabarrixa jarriko dute 20:00-etan Iturriko erromaran, kantuan egin eta auzo jiran joango dira. 20:30ean, auzo afaria izango dute, eta afa-losterako hainbat ekintza antolatu dituzte: auzoko leku izenen maparen aurkezpena, dantzaldia eta

zozketak. Zapatua auzo jirarekin hasiko dute, eta 12:00etan meza nagusia izango dute Aretxabaleta Abesbatzaren laguntzarekin. Gero luntxa eskainiko dute auzoko produktuekin. 13:30ean, gimkana txapelketa egingo dute eta 18:00etan, Areantzako jolasak: txapela jaurti, itsulapikoa bete... 19:00etan, ostera, aro-sartze txapelketa.

Domekan Kurtzebarrira joango dira auzotarrak, eta jaiak bukatzeko Martin Kabarrixa etxeratu-ko dute eguerdian.



Zapatuan jolasak izango dira protagonista Agorreko Andramaixetan.

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 10
FRAILA: Herriko Plaza, 10... 943 79 21 99

DOMEKA, 11
FRAILA: Herriko Plaza, 10... 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzaila	943 71 18 62
Industriaidea	943 79 62 80
Institua	943 79 79 00
Kirio etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Ossun etxea	943 71 19 59
Oralora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Parroka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALITZAINGOA
Arasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gornia	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzailak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 20:00
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domeketan: 12:30

ARKARAZO
Domeketan: 11:30

GELLAO/ZURIETA/GALARTZA
Ez dago mezarik.

KONTZENTRAZIOAK

Kontzentrazioak egiten dituzte Zuhaitzen egoera salatzeko

M.A.

Irailaren 1a ezker kontzentrazioak egiten dituzte egunero 19:00etan, Mitarte kalean. Salatu gura dute Zuhaitz Errasti isolamenduan eta gose greban dagoela Nantesen.

Abuztuaren 15a ezker dago gose greban Zuhaitz Errasti Nantesko presondegian. Hala, harekin bat egin eta isolamenduan dagoela salatzeko kontzentrazioak egiten dituzte aretxabaletarrek egunero, Mitarte kalean.

ISOLAMENDU EGOERAN

Uztailaren 28an atxilotu zuten Zuhaitz, Frantzia erdialdeko Briev-la-Gaillarde herrian, Jon Troitiñorekin batera. Fleuryko presondegira eraman zuten lehengo, baina handik egun gutxira Nanteskora aldatu zuten. Nantesen isolamenduan daukate, eta Zuhaitzek eskaera egin zion kartzelako zuzendariari beste presondegi batera eramateko, beste euskal preso politikoekin batera. Zuzendariak epailearekin hitz egin behar zuela esanaz ez dio oraindik erantzunik eman, eta gose grebari hasiera ematea erabaki zuen abuztuaren 15ean. Gai-

Kontzentrazioak egiten dituzte Zuhaitzekin bat egin eta isolamendu egoera salatzeko

nera, ez du utziko gose greba beste euskal presoekin eraman bitartean.

Herrian bat egin dute Zuhaitzek bizi duen isolamendu egoerarekin, eta gose greban dagoela gogorarazteko kontzentrazioak egiten dituzte egunero, 19:00etan, Mitarte kalean. Hala jarraituko dute, Zuhaitzek isolamendu egoeran dirauen bitartean.

KEPA URRA, CADIZERA

Orain arte Coruñaiko Curtisen egon den Kepa Urria, bestalde, Andaluziara eraman dute abuztuan. Coruñatik atera ostean Salamanca eta Badajozko espetxeetan izan dutela jakin dute etxeok, eta orain, Cadizko Puerto de Santamaria kartzelan dago. Lehen ere sei urte eta erdi pasatu zituen Kepak Puerton.



Mitarte kalean egiten dituzte kontzentrazioak irailaren 1a ezker.



Urteroko erromesaldia Arantzazura

Urtero moduan iraileko lehen astelehenean erromesaldia egin zuten aretxabaletarrek Arantzazura. Autobus bi hurreratu ziren Basotxo Erretiratuen Elkartek antolatuta, eta udalbatzako kideek ere ez zuten hutsik egin. Mikel Uribebarria, Xabier Sarasua eta Joxe Anjel Antxia zinegotziek oinez egin zuten Arantzazurako bidea. Autobusean joandako herritarrek Ostatuan bazkaldu zuten eta udalbatzako kideek, Udaleko hainbat teknikarirekin batera, Zelai-Zabal jatetxean. / M.A.

LABUR

16:00etatik 20:00etara dago zabalik KZgunea, eta hainbat ikastaro antolatu ditu

Irailarekin batera zabaldu ditu ateak KZguneak, eta nabigatzera joan gura duenak arratsaldeetan dauka zabalik, 16:00etatik 20:00etara. Internet ezagutu gura duenak, bestalde, hainbat ikastaro ditu aukeran hil honetan bertan. Nabigatzen ikasteko ikastaroa hilaren 19an hasiko dute; egunkaria zela irakurri hilaren 15ean eta Internet bidez erosten animatzeko, ostera, hilaren 16an. Posta elektronikoa erabiltzen erakutsiko dute irailaren 22an eta finantzekin zerikusia daukaten ikastaroak emango dituzte 27an eta 28an. Eta foroetan zelan parte hartu jakin gura duena hilaren 29an hurrera dadila KZgunera. Ikastaro guztiak dira euskaraz, eta izena emateko Markole auzoan dagoen lokalera hurreratu beharko dira interesatuak.

Irailaren 12tik aurrera ohiko ordutegia du liburutegiak, eta 19tik aurrera udaletxeak

Astelehenetik aurrera, irailak 12, ohiko ordutegia izango du Udal Liburutegiak: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Udaleko teknikariek, ostera, oraindik beste aste-bete egingo dute uda garaiko ordutegiarekin. Hala, hilaren 12tik 19ra bitartean goizez bakarrik egingo dute lan. Goizez udaletxera joan ezin duenak, jakin dezala 19tik aurrera goizez eta arratsaldez aurkituko dituela udaletxean.



LURRINDEGIA OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA



Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68



URA GASA KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

Lau kirol jarduera berri eskainiko dituzte kirol etxean ikasturtean

M.A.

Irailaren 19an hasiko dute ikasturtea kirol etxean, eta hainbat kirol jarduera eskaini dizkiete herritarrei. Betiko jarduerekin batera lau berri hasiko dituzte: tonifikazioa, gimnasia terapeutikoa, bizkarra lantzeko gimnasia eta gorputz kontzientzia.

Ikastaroen berri ematen duen esku-orria banatu dute Udaleko kirol zerbitzuek etxez etxe, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuak kirol etxera deitu besterik ez dute, ikastaroak hastear daude.


LAU IKASTARO BERRI

Herritarren beharrak kontuan hartuta eta kirol eskaintza zabalagoa eskura jartzeko asmoarekin lau ikastaro berri antolatu dituzte kirol zerbitzuek. Muskuluen tonua garatzen erakutsiko dute tonifikazioa deritzon jardueran. Hankak, gluteoak, bizkarra, abdominalak, besoak eta beste horrenbeste atal landuko dituzte taldean musikarekin. Gimnasia terapeutikoa, ostera, min edo patologiarekin bat duten pertsonen zuzendutako gimnasia da. 60 minutuko bi saio egingo dituzte astean, eta irakaslea fisioterapeuta izango da.

Bereziki bizkarra eta abdominalak landuko dituzten jarduera ere antolatu dute, eta astean 30 minutuko bi saio egingo dituzte. Bestalde, pilates metodoa entzuten da asko azken urteotan, baina oraindik batzuek ez dakite zer den. Gorputz kontzientzia jarduera pilates metodoa ezagutzen joateko antolatu dute: luzaketak, erlaxazioa, arnasketa eta beste horrenbeste ariketa landuko dituzte Pili Muñagorri irakaslearekin.

BETIKO KIROL JARDUERAK

Berriak bakarrik ez, azken urteotan eskaintzen dituzten jarduerak guztiak egongo dira aukeratzeko kirol etxean. Arrakasta handia izan dute orain artean aerobik eta spinning jarduerak, eta gaztetxoak ere hurreratzen dira. Hala, aerobika 14 urtetik gorakoen



Ikasturtea hasteko 16 urtetik gorakoendako bakarrik eskaini dute spinninga.

Pilates metodoa ezagutzen joateko antolatu dute gorputz kontzientzia jarduera

dako antolatu dute, eta astean bi egunetan edo hirutan egin ahal izango dute. Spinninga, berriz, 16 urtetik gorakoendako izango da, eta astean egun bakarra, bi egun edo hiru egun dituzte aukeran. Mantentze gimnasia ere egongo da 16 urtetik gorakoendako.

Igeriketa ikastaroak, ostera, ume zein nagusiendako daude. Hiru urtetik gorakoek 30 minutuko bi saio izango dituzte astean, eta helduek 45 minutuko saioak. Helduen kasuan hastapeneko ikastaroa eta hobekuntza ikastaroa daude aukeran. Igerian egin barik, uretan gimnasia egin gura duenak aquagyma izango du.

Hirugarren adinekoendako gimnasia astelehen, eguazten eta

Masaje zerbitzua dago martxan uda ezkerre, eta aurrez deitu behar da txanda hartzeko

egubakoitz goizetan emango dute, eta gutxitu psikikoendako Atzegiko gimnasia martitzen, egun eta egubakoitz arratsaldeetan. Banakako entrenamenduak ere eska daitezke kirola modu egokian egiten ikasteko.

ERA GUZTITAKO MASAJEAK

Guztia osatzeko masaje zerbitzua dago martxan uda ezkerre: masaje terapeutikoak, erlaxagarriak, kirol lesioen tratamendua... Aurrez hartu behar da txanda kirol etxera deituta edo fisioterapia@goienasport.com helbidean eskaera eginda. Ez da beharrezkoa kirol etxeko abonatu izatea, baina horiek prezio bereziak dituzte.

Goiz pasa bikaina antolatu dute Kurtzebarri egunerako

M.A.


Kurtzebarri mendiaren eguna ospatuko dute domekan, irailak 11. Murruxio Mendizale Elkartek gertu dauka egitaraua: 11:00etan salda, 11:30ean meza eta ondoren mokadutxo. Goiz pasa bikaina mendizaleendako.

Kurtzebarri mendiaren magalean bizi gara aretxabaletarrok eta urte guztian geuri begira dagoen mendiarekin gogoratzen gara irailan. Murruxio MEk aurtan ere goiz pasa ederra antolatu du aretxabaletar eta domekan

Kurtzebarrira hurreratuko den guztiarendako.

Indarrak berreskuratzeko salda emango dute tontorrean 11:00etan, eta 11:30ean meza esango dute. Bukatu ondoren eta barrua berotzeko mokadutxo eskainiko diete Murruxio kideek igotako: txorizoa, gazta eta xanpaina. Eguraldi txarra egin zeto gero antolatzaileek erabakiko dute non egin ospakizuna.

Dagoeneko 77 urte bete dira aurtan Kurtzebarrin gurutzeari jarri zutela hainbat herritarrek. Ospakizun handia egin zuten 1928an, eta ordukoa gogoratu eta ospatuko dute domekan.



Urtero igotzen dira 100 bat lagun mendi tontorrera Kurtzebarri eguna ospatzera.

KARATE KYOKUSHINKAI



Ordutegia:
Astearte eta ostiralak
18:30etik 20:30era
Kurtzebarri eskolan

Tel.: 656701737

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Mobiliario ARENAZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA


Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Angelines AUTOZERBITZUA


*Frutan eta txarkuterian
espezialitatea*

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsetan jatzu New Orleansen bizi dauen egoerie?



KONTXI CARRASCO
Langillie




IMANOL LUENGO
Langillie



ELENA PEREZ
Langillie



JOSU PEREZ DE EULATE
Langillie



DEIANE MADINABEITIA
-Langillie



ILDEFONSO ALVAREZ
Langillie

Telebistan ikusi dittut irudixek eta gogorra da benetan. Emuten dau herritar danak atarateko astirik ez dauela izen. Egixe esateko ez dakit ze baliabide biher izengo zittuen.

Betiko moduen pobriek die galtzailliek eta New Orleansen be horretxeik die laguntzarik jaso ez dauenak. Natura bere lekuen bille juen da, hortan, gauzak ondo egin biher dien seiñale.

Ez nau harritsu, bapez, herri aberatsen barruan oso txarto pasetan dauen jentie dau eta horixe ikusten da. Gizakixak dana dominau gure dau, baitte natura be, baiñe argi dau ezin dauela.

Halako ahalmena daukiela erakusten ibiltten die beti Ameriketako Estatu Batuak, eta etxien tokau jakuenien ez daue biher dan moduko erantzunik emun. Hori ikusten dou kanpotik.

Geu gabiltz dana hankaz gorra jarten, eta pentsetan dou indartsuek izenda naturiei aurre egin biher dutzouela, baiñe ezin da. Herri pobriek tokau jakie oin arte, baiñe aberatsak be ez dauz salbu.

Ez euen pentsau be egingo halakue izengo zanik. Ameriketako Estatu Batuak aberatsak die itxura baten, baiñe zalantzak dittut; hamen baiño okerrau bizi dan jentte asko dauelakuen nau.

TYALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK APURKETAK INSTITUTUAN Oporretatik bueltan gorabehera asko aurki daitezke, baina okerrenarekin egin dute topo Aretxabaleako Institutuan: apurketak eta lapurretak. Baten batzuk aspertu egiten ziren oporretan eta Institutua aurkitu zuten egonleku. Hori bakarrik ez, han eta hemen apurketak egin eta bide batez materiala eramateko aprobetxatu zituzten egunok. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Antonio Astigarraga parrokoaren agurra

Sei urte egin zituen Antonio Astigarraga azkoitiarrak Aretxabaleako parrokiaren buru, eta irailaren 14an agur esan zien herritarrei. Bartzelonara joan zen liturgiaren gaineko ikasketak egitera, eta haren lekua betetzeko, gotzainak Jesus Ortiz de Urbina izendatu zuen parroko.



ASTEKODATUA

5

ENPRESA AURKEZTU DIRA ETXEO LAGUNTZA EMATEKO

Uztailarekin batera itxi zen etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzeko Udalak kaleratutako deialdia. Bost enpresak aurkeztu zuten proiektua, eta orain erabakiko du Udalak zeini eman.

BESTEKEESANA

“Autoa hartu eta geure kontura hiru lagun joan ginen Alemaniako Kolonia hirira. Bidaiaren lema zen

Zatozte bera agurtzera! Bera ez da Aita Santua, bera da Jesus, eta helburu horrekin antolatu zen Kolonian mundu mailako gazteen topaketa. Lema hori zen tradizioak dielako Koloniako katedralean daudela hiru magoen erlikiak, Belenera Jesus gurtzera joan ziren hiru magoen erlikiak, eta gu ere haien antzera Jesus gurtzera joan ginen Koloniarra. Benetan gauza zirraragarria da hainbeste gazte elkartzea; 700 mila eta milioi bat artean elkartu ginela esan zuten, ez dakit, baina asko. Hiriak berak beste horrenbeste biztanle ditu eta erabat gaindituta geratu zen, hori Alemania izanik eta oso ondo antolatuta egonda.

JON MOLINA
Arrasate Irratia/05-09-05

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Lepoan hartu (e)ta segi aurrera...

Bai, musika eder pixka bat beharko da orain dela egun gutxi batzuk hasitako hilabeteari aurre egiteko. Udarako oporren ondoren etxera itzultzeko mailetak itxerakoan bertan gelditu dira hondartzako eta mendiko ametsak, lagunarteko egonaldia, egun bereziak eta desordenatuak batzutan... Eta datorren urte arte! Herriko lasaitasunaren gelditu garenok edota gutxiago mugitu aldapa xamurragoa egingo zaigu aldaketak txikiagoak izan ditugulako. Dena den, psikologikoki txipa aldatu beharko dugu gizartean oporrak mito baten antzekoak bihurtzen ari baikara eta hori denon baitan sartzan da. Ez noa atsedendialdiak ukatzera, beharrezkoak dira. Baina, ez litzateke gaizki egongo egun hauei argazki bat egitea; urteko korrikak eta presak, estresak, hasi aurretik gelditu eta atsedendialdiaren, horrela gertatu bada, erretratua

begiratzea: Ze izan dira egun hauek niretzat/guretzat? Nola bizi izan ditut? Nire gorputzak eta arimak lasaitasun pixka bat ezagutu dute? Benetan disfrutatu dut eta berritua sentitzen naiz?

Badakit ez dela erraza geure begiak, buruak eta bihotza

“Psikologikoki “txipa” aldatu beharko dugu gizartean oporrak “mito” baten antzekoak bihurtzen ari baikara”

Estatu Batuetako hegoaldeko Katrinarren eta beste hainbat kalamitatezko irudiaz eta informazioz bete zaizkigun honetan “ariketa” hau egitea. Baina, gauza bat egin dezakegu: gertakizun hauek ere geure

hausnarketaren barruan txertatu. Irudiak eta notiziak bakarrik entzutea, Ameriketako presidenteari erru gehiena botatzea ez da nahikoa, uste dut inoiz baino gehiago geure bizitza, munduko gertakizunak irakurtzen, geureganatzen ikasi beharra daukagula; bestela, aurki, gara berriro ikasturtearen etsipenezko lamentazioak jotzen. Eta hori, bizitzea ote? Horretarako oporrak merezi ote?

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Eguena / 2005eko irailaren 8a / 221. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxe: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Herritarrek aisialdia antola dezaten, zerbitzu gida banatu dute etxez etxe


IKER BARANDIARAN

Udalak *Eskoriatzako Aisialdiaren Zerbitzu Gida* kaleratu du. Eta liburuxka horretan laburbiltzen da aisialdia antolatzeko herrian dauden ekipamendu, elkarte eta ikastaro eta bestelakoen eskaintza. 2.000 ale kaleratu, eta etxez etxe banatu dituzte asteen.

Eskoriatzako Udaleko Gazteria Sailak, beste hainbat sailekin elkarlanean (Kultura, Prebentzioa eta Euskara), *Eskoriatzako Aisialdiaren Zerbitzu Gida* kaleratu du. Joan den ikasturtean egin zuten lehenengo aldiz, eta asteen 2005-2006 ikasturteari dagokiona banatu dute herriko etxe eta baserri guztietan.

Gida elebiduna da, eta doan banatzen dute. Tamaina txikikoa da, erabilgarria izan dadin. Iaz oso harrera ona izan zuen, eta ekimena errepikatzea erabaki dute.

Udaleko Gazteria Saileko teknikari Mainer Etxanizen esanetan, "helburua da liburuxka horretan batzea herrian dagoen aisialdirako eskaintza guztia". Horren aldeko ahalegina egin dute, eta baita lortu ere. Horrez gain, Udalak kultura eta kirol aisialdirako dituen azpiegituren berri ematen du, baita herrian



Eskoriatzako Aisialdirako Zerbitzu Gida tamaina txikikoa da, erabilgarria izan dadin.

dauden elkarten gainekoa ere. Azpiegitura horien zerbitzuak jasotzeko edota elkarte horiekin harremanetan jartzeko bidea ematen dute horren bitartez.

Informazio hori guztia zazpi ataletan banatuta dago: Musika eta dantza, Kirolak, Eskulanak, Kultura eskaintza, Ekipamenduak, Elkartegintza eta Bestela-

Liburuxka erabilgarri hori udalerriko etxe eta baserri guztietan banatu dute

koak, hain zuzen ere. Horrez gain, zehaztu dute eskaintza bakoitza zein adin-talderi dagokion. Horretarako, hiru multzo bereiztu dituzte: Haurrak, Gazteak eta Helduak.

Ekipamenduan, Ibarraundi museoaren, Udal Bibliotekaren, kiroldegia, pilotalekuaren eta kultura etxearen gaineko oinarriko informazioa batu dute.

HAINBAT IKASTARO HASTEAN

Gida horren bitartez, besteak beste, herritarrei aditzera ematen diete zein ikastaro egin ditzaketen. Esaterako, Musika eskolan hainbat ikastaro prestatzen dabil-tza. Horietako zenbaitetan esku hartzeko, komeni da irailaren 20a aurretik izena ematea: hain zuzen ere, Musikaren oinarriko ezagutza, Musika tresnak, Kantu korala eta Euskal dantzak.

Eskulanen alorrean ere hainbat ikastaroren izenematea bukatzeaz dago: Pintura ikastaroa, Oihalean margotzea eta larrua zaharberritzea, Olio pintura, Ehoziriak, makrame eta bainika, eta Eskulanak. Horiek guztiak kultura etxean egingo dituzte.

GAZTEENDAKO

Herriko hainbat elkarte ere lan handia egiten dute, eta nork bere alorra lantzen du. Gazteen esparruari gazte batzarrak eta Udaleko Gazte Sailak heltzen diote. Azken horrek, adibidez, sei ikastaro egingo ditu urtea bukatu aurretik: Hennazko tatuajeak, Malabarismoa, Perkusioa, Funky, Masaje eta Tai Chia. Azken hori hilaren 16an, 17an eta 18an egingo dute. Izena emateko edo informazioa batzeko, jo Gazteria Zerbitzura lehenbailehen (Herriko Plazan dago).

Pozik daude Ibarraundi museoak izan duen bisitari kopuruarekin

I.B.

Udala pozik dago Ibarraundi museoak uztailean eta abuztuan izan duen harrerarekin. Guztira, 220 bat bisitari izan ditu museoak, eta Artemanek Eskoriatzaren gainean egindako DVDA ondo saldu dute.

Oso baikor dira Udaleko Turismo eta Ondare Saileko arduradun Juan Luis Merino eta museoko langile Leire Parra. "Lehenengo aldia

da museoa udan zabaldu duguna, eta poliki-poliki jendea badabil hona gerturatzen", azaldu zigun Leire Parrak.

ESKORIATZAREN JAKIN-MINA

Uztailean eta abuztuan museoan izan diren 220 lagunetatik erdia baino gehiago -120- eskoriatzarrak izan dira. "Hori oso positiboa da. Azken finean, museoa herriarena da eta garrantzitsua da herritarrek interesa erakustea". Are gehiago, bai museoa eta baita

herriaren eta museoaren gaineko DVDA ere oso gustuko izan dute, eta hainbatek erosi dute.

Kanpotarren artean, gehienak bizkaitarrak eta gipuzkoarrak izan dira, baina Katalunia, Madril edota Europako herrialdeetakoak ere etorri dira hainbat lagun.

Aipatutako DVDaz gain, Ibarraundiko logoa daukaten elastikoak, bitxiak eta bestelakoak daude salgai museoan. Are gehiago, ibarreko eta Euskal Herriaren gaineko turismo informazioa ematen dute.



Argazkian, DVDaren aurkezpena, Ibarraundi museoaren inaugurazioan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Lanialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

GAZTEENDAKO IKASTAROAK, ASTE BUKAERETAN

Udaleko Gazteria Zerbitzuak bi ikastaro antolatu ditu, eta iraileko asteburuetan egingo dituzte.

Hilaren 16an, 17an eta 18an, Tai Chi irakatsiko diete 12 eta 16 urte bitartekoei, 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 24an eta 25ean, berriz, malabarismo ikastaroa egingo dute 15 urtetik gorakoendako. 24an, 10:30etik 13:30era; eta 25ean, 17:00etatik 20:00etara. Eman izena lehenbailehen.

Etxez etxeko laguntza egiteko, hiru enpresa

IKER BARANDIARAN

Hiru enpresa aurkeztu dira etxez etxeko laguntza eskaintzeko. Bata, Durangokoa; beste bat, Arrasatekoa; eta hirugarrena, Donostiakoa. Udalaren asmoa da ezinduei edo beharra dutenei etxean edo zainketan laguntzeko enpresa bat kontratatzea. Hasi du prozedura.

HIRU ENPRESA LEHIAN

Aste honetan, astelehenean bukatu da izena emateko epea, eta hiru enpresa aurkeztu dira zerbitzu hori emateko: bata, Durangokoa da; beste bat, Arrasatekoa; eta hirugarrena, berriz, Donostiakoa.

Hortaz, hileko azken eguenean, udaleko osoko bilkuran erabaki beharko dute zein enpresak irabazten duen lehiaketa. Hark emango du zerbitzua.

Udala aspalditik zegoen ardurata etxez etxeko laguntza zerbitzua hobeto antolatzeko. Horregatik, joan den ikasturtean Gizarte Laguntza Sailean gaia landu zuten. Hala, uztailako azkeneko osoko bilkuran zerbitzua lehiaketa publikora atera, eta zerbitzu hori emateko enpresa bat kontratatzea erabaki zuten.

Hilabeteko azkeneko eguenean, osoko bilkuran erabakiko dute zein enpresa kontratatu



Musika taldeen CDa egin gura dute

Udaleko Gazteria Sailak CD bat egin gura du, herriko musika taldeen abestiekin. Interesatuak Gazteria Zerbitzura jo behar dute izena ematera, irailaren 12a aurretik. Taldeko kideen erdiak eskoriatzarra izan behar du; grabatzeko moduko kantu orijinalen bat izan behar dute; eta 35 urtetik beherakoak izan behar dute. Argazkian, Lukas Prest taldea. /I.B.



Lehenengo osasun etxean, Santa Anan, jarriko dituzte bi zerbitzuak.

Ludoteka eta Bake Epaitegia, Santa Anara

I.B.

Ludoteka eta Bake Epaitegi berria izango dira laster herrian. Biak Santa Ana auzoan jarriko dituzte. Bake Epaitegiko lanak hasita daude dagoeneko. Ludotekakoak, berriz, astelehenean esleitu dituzte. Biak hala biak osasun etxea zegoen etxabeetan jarriko dituzte.

Ludoteka Arana kaleko 13. zenbakian dago, eta han jarraituko du berria egin artean. Arana kaleko etxabea Jose Arana fundazioarena da, eta Udalak gurago du

ludoteka lokal propio baten izatea. Gainera, lokal berria handiagoa izango da. Bestalde, aipatu beharra dago uda aurretik Gasteizko Ludoland enpresak udalekuak eta ludoteka kudeatzeko lehiaketa irabazi zuela. Lanek 48.650 euroko aurrekontua dute eta 2006 hasierarako ludoteka zabalik egotea gura dute. Bi enpresa aurkeztu dira: Gasteizko Aralan eta Eskoriatzako Ramel.

Bake epaitegia ludotekaren ondoan egingo dute, baina dagoeneko lanak hasita daude. Urrian prest egotea gura dute. Udaleko zerbitzuetatik bereiztu eta leku txukunagoan jarriko dute.

LABUR

Ezezagun batzuek kultura etxeko lokaletan apurketak egin zituzten zapatu gauean

Joan den zapatu gauean, ezezagun batzuek kultura etxeko lokaletan -herriko plazan- sartu ziren. Udaltzaingoa aditzera eman duenez, ezezagun horiek Gazteria Bulegoa hankaz gora jarri zuten. Horrez gain, lehenengo solairura igo ziren eta han su-itzalgailuak hustu zituzten, eta guztia hautsez zikindu.

Ez zen egindakoa hor bukatu. Balkoira irten ziren eta handik mahai bat bota zuten lorategira. Horrez gainera, erretiratu elkarteko aulki batzuk errekan agertu dira. Bestalde, badi-rudi ez zutela garrantzizko lapurretarik egin. Udalak salaketa jartzeko asmoa dauka.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA

DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

DEMESTRE

bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

Txirritola

ARAMAIO / Eguena / 2005eko irailaren 8a / 162. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Osasuna eta parke naturalak berbagai, Aste Kulturalean

U.M.

Datorren astean ospatuko dute Alaiak Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak urtero antolatzen duen Aste Kulturala. Martitzenean hasi eta eguenera arteko ekitaldiak izango dira. Tartean, martitzenean, ariketa fisikoaren gaineko hitzaldia antolatu dute, herritar guztiendako.

Jose Antonio Apraiz medikua ekarriko dute Aramaiora, martitzeneko hitzaldirako. Kirol arloan

urte luzez jardun izan du lanean Apraizek, Gasteizen. Eta kirolak eta osasunak duten harremanaren garrantzia kontuan hartuta eta Udaletik dirulaguntza handiagoa izan dutela aprobetxatuta, Alaiak elkarteok ahalegin berezia egin dute Apraiz medikua Aramaiora ekartzeko. *Ariketa fisikoa eta gorputz osasuna* gaia landuko du Apraizek. Eta Alaiak elkarteak interesa duten herritar guztiak gonbidatu ditu hitzaldira. Esandako moduan, martitzenean izango da, 17:00etan, kultura etxean.

Hurrengo egunean, berriz, beste hitzaldi bat izango da. Kasu horretan, *Arabako parke naturalak da* haren izenburua. Besteak beste, Urkiolako eta Gorbeako parke naturalen gainean berba egingo du Diputazioko kide Patxi Sanchezek. Berbaldi hori ere 17:00etan izango da, kultura etxean.

BATZAR OROKORRA

Eta Aste Kulturalekin amaitzeko, eguenean, hilak 15, batzar nagusia egingo dute Alaiak elkarteok. 16:30ean da lehen deia; 17:00etan, bigarrena. Besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: diruzaintzaren txostena, urteko txostena, kuotaren eguneratzea, 2005-2006 ikasturterako egitasmoak eta batzarraren berritzea.

Batzarraren ostean, luntxa izango dute, 18:00ak inguruan.

ERRETIRATUEN EGUNA ETA TXANGOA

Horrez guztiaz gainera, irailaren 23rako Iruñara txangoa antolatu dutela ere jakinarazi digu erretiratu eta pentsiodunen elkarteak. Besteak beste, Oteiza museo ikustera joango dira. Horrez gainera, txikiteoa eta bazkaria ere izango dituzte. Txangora joan nahi duenak irailaren 16a baino lehen 25 euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxan.



Argazkian, Alaiak elkarteko zenbait kide, erretiratuen egoitzan.

Domekan: Andra Mari Ibabe kofradiaren eguna

U.M.

Andra Mari Ibabe kofradiako bazkideek izen bereko ermitan dute hitzordua etzidamu. Eguerdian hasiko dira kofradiaren eguna ospatzen, salda eta mezarekin. Eta batzar nagusia ere egingo dute, besteak beste. Parkean konpondu beharrean dagoen paretaren gainean berba egingo dute tartean.

Lehenengo, salda beroa banatuko diete kofradiako kideei; 12:00ak inguruan izango da hori. Horren ostean, meza esango du Emilio parrokoak, 13:00etan. Eta

ohi duten moduan, meza ostean urteroko batzar nagusia egingo dute kideek. Honako gai zerrenda dute aurreikusita: joan den ikasturtean egindakoaren berri eman; aurtengo ikasturterako dituzten asmoen berri eman (besteak beste, parkeko paret bat konpondu beharrean dago) eta kofradiara etorri diren bazkide berrien zein hil diren bazkideen berri eman.

Hori egin ostean, ermitaren goiko aldean dagoen aretoan bazkaria egingo dute bazkideek. 14:30ak inguruan izango da hori eta dagoeneko 75 lagunek eman dute izena.

Testuliburuak erosteko laguntzak eskatzeko epea zabaldu dute

U.M.

Astelehenean zabaldu zuten dirulaguntzak eskatzeko epea. Urriaren 14ra arte dago eskariak egiteko astia. Gasteizen, Laudion eta Guardian (Biasteri) egin daitezke eskaerak, astelehenetik barikura, 08:15etik 14:30era arte.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan nahitaez erabili beharreko liburuak erosteko laguntzak ematen ditu Diputazioak. Bi baldintza bete

behar dira haiek eskatzeko: eskatzailea (ikaslea) matrikulatuta egotea lehen esandako mailaren baten eta Araban erroldatuta izatea.

Eskaerak bi lekutan egin daitezke: Ogasun, Finantza eta Aurre-

kontu Sailak Gasteizko Samaniego kaleko 14 zenbakian duen bulegoan edo sailak Laudion eta Guardian (Biasteri) dituen bulegoetan.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntzak onartuz gero, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko mailatarako, gehienez, 44,12 euro emango ditu Diputazioak; Lehen Hezkuntzako zikloko mailatarako, 71,82 euro eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailatarako, berriz, 110, 81 euro.

Informazio gehiagorako: 945 18 16 02 telefonora deitu edo [librosdetexto@alava.net](mailto:detexto@alava.net)-en begiratu.



Biltegiak ez ditu kalte handiegirik erakusten; baina sortu zen arriskua handia izan zen.

Gureiako baserri baten biltegia erre egin da

U.M.

Ibarguren baserriaren ondoko biltegia erre egin zen astelehenean. Suhiltzaileen laguntzarekin lortu zuten sua emendatzea. Baserriak eta bizilagunek ez zuten kalterik izan.

Astelehen iluntzean piztu zen sua Gureiako Ibarguren baserrian. Etxeko ugazaba belar zaharrak erretzen zebilela, baserriaren ondoan duen biltegiaren teila-

tuak su hartu zion. Suari eusten ahalegindu zen gizona, baina ezin zuela ikusita, suhiltzaileei deitu zion. Haiei bidea aurkitzea kostatu egin zitzaion eta ordubete edo gehiago tardatu zuten. Zorionez, baserriarrak garrei eustea lortu zuen Gasteizko suhiltzaileak iritsi arte. "Senarrarengatik ez bazen, baserri osoak hartuko zuen sua, hala esan ziguten suhiltzaileek". Azkenean, zorionez, Ibarguren baserriak eta hango bizilagunek ez zuten bestelako kalterik izan.

*Urriaren 14ra arte
eska daitezke
laguntzak,
Gasteizen, Laudion
edo Biasterin*

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaletza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan delitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

MACREA UMORISTAREN SAIOA

Bihar, barikua, izango da, 22:30ean, kultura etxean. *Bake eta umorezko autobusa* du izena. Ikuskizun ikusgarria izango dela iragartzen dute; ikusleek parte hartzeko zein iritzia emateko aukera izango dute.

ZINEMA, AIRE LIBREAN

Vital Kutzak antolatutako *Musika, Dantza, zine VITAL Araban zehar* egitaismoaren barruan, zinema saioa izango da bihar, 21:00etan, plazan. *Sahara* emango dute. Abenturazko filma da, 127 minutu irauten du eta Breck Eisnerrek zuzendu du. Matthew McConaughey, Steve Zahn eta Penelope Cruz azaltzen dira, besteak beste.

ERRETIRATUAK TELEBISTAN

Joan den astean izan ziren zenbait erretiratu *Date el Bote* saioa grabatzen. Hiru programa grabatu zituzten eta datorren astelehen, martitzen eta eguaztenean emitituko dituzte. Horrez gainera, jakinarazi digute azaroan berriro joateko asmoa dutela. Auzoz auzo joateko asmoa dute, saiora joateko asmoa dute, saiora joateko asmoa dute, saiora joateko asmoa dute, saiora joateko asmoa dute.

Zenbait zuhaitz errotik atera eta erre egin beharko dituzte

U.M.

Ez ziren oso pozik atera su-gorriarenatik kaltetuta dauden auzotarrak asteleheneko batzarretik. Besteak beste, jakinarazi zieten zenbait arbola erre egin beharko dituztela eta trukean dirulaguntza emango dietela. Baina kopuru txikia iruditu zitzaizkien baserritarrei.

Diputazioko eta Jaurlaritzako ordezkariak Aramaion izan dira birritan, su-gorriaren gaineko azalpenak ematen. Astelehenean, Azkoagatik kilometro baten bueltan dauden auzotarrek izan ziren. Martitzenean, berriz, entzutera joan ziren bestelako herritarrek.

Su-gorriaren sintomen eta ondorioen gainean jardun zuten lehenengo. Besteak beste, jakinarazi zuten lehen aldia dela Arabako fruitu-arboletan gaixotasun hori atzematen dutela; baita ere jakinarazi zuten, su-gorrina ez dela osatzen, beraz, gaixotasunari aurre egiteko modu bakarra, prebentzioa dela. Eta bestelakoen artean, Gipuzkoan oso hedatuta dagoen gaixotasuna dela ere esan zuten Diputazioko ordezkariak.

Ondoren, gaixotasunari aurre egiteko hartu beharko dituzten neurrien gainean berba egin zuten.

KALTE-ORDAIN TXIKIA

Hain justu ere, neurri horretarako batzuek piztu zuten kezka baserritarren artean, batzuk gehiegizkoak direlakoan eta beste batzuk motz geratzen direlakoan.

Diputazioko ordezkariak jakinarazi zuten hilabete honetan ingurua ikuskatzen hasiko direla eta ikusten badute zuhaitzen batek itxura eskasa duela analisiak egingo diotela; eta egoera oso eskasa bada, zuhaitz hori errotik atera eta erre egin beharko dutela. Trukean, zuhaitz



Azkoagatik kilometro batera dauden auzotarrak, asteleheneko batzarrean.

U.M.

Gipuzkoan, esaterako, oso hedatuta dagoen gaixotasuna da su-gorrina

bakoitzeko 16,22 euroko kalte-ordaina emango diete.


Horren aurrean, zenbait baserritarrek kexua azaldu zuten, euren ustez, kalte-ordaina murriztegia delako.

ERLAUNTZAK KENDU BEHAR

Diputaziokoak, baita ere, jakinarazi zuten, bestelakoen artean, erlek su-gorrina hedatzen asko lagun-

Aldiz, lehenengo aldia da Arabako fruitu-arboletan su-gorrina azaltzen dela

tzen dutenez, Azkoagatik bost kilometrora dauden erlauntzak kendu beharko dituztela. Kasu horretan ere, zenbait kexatu egin ziren; izan ere, neurri hori bakarrik Araban hartuko dute. Beraz, esaterako, Arrasateko erlauntzengan, nahiz eta Aramaiotik bost kilometro baino gertuago izan, ez du inolako eraginik izango; entzuleen ustez, horrek ez du zentzurik.



Gustura ibili dira Albina inguruan, Marixeka egunean

Gurè irakurle fin batek Marixeka eguneko honako argazki hau utzi digu, zeuei erakusteko. Egun bereko kontutxo batzuk ere esan dizkigu; esaterako, eguerdiko mezan, Eusebio Bengoa, Ramon Kortabarria eta Felipe Kortabarria gogoan izan zituztela. Kontatu digu, baita ere, bazkarian 35 lagun izan zirela, ondo asko bazkaldu zutela, eta arratsaldean animazio handia izan zela, Gorriti eta bere animaliekin eta Gardoki aita-alabekin. //IRATXE BENGOA.

LABUR

Eguzkierripakoek jaiak dituzte, domekara arte

Eguzkierripako auzotarrek, besteak beste, auzoko jaiak aprobetxatuko dituzte elkar ikusi, elkarren berri izan eta auzoaren gainekoak komentatzeko. Bihar iluntzean (barikua) hasiko dira ospakizunekin; jaien egitarauaren barruan, afaria egingo dute eta auzotarrek. Zapatuan, berriz, bi hitzordu dituzte: batetik, 12:00etan herri meza izango da. Bestetik, gauean, Jose Gardokik eta haren familiak giro-tutako erromeria izango dute, 23:00etan hasita.

Bukatzeke, domekan, eta Andra Mari Ibabe kofradiaren eguna dela aprobetxatuta, dei egiten dute 13:00etan Andra Mari ermitan Emilio parrokoak esango duen mezara joateko.

Berez, esandako guztia Eguzkierripako jaien barruan izan arren, auzotarrek jaietara joan nahi duten guztiak gonbidatu gura dituzte parte hartzera.

Egitarau mardula antolatu dute Legutianoko jaietan

Bihar, barikua, hasiko dira Legutianoko jaiak, eta astelehenera arte iraungo dute. Tartean, denetarik izango da. Esaterako, bihar, 20:30ean, koblakariak ibiliko dira kalean eta 00:00etan, O Funk'Illo taldeak kontzertua egingo du. Horren ostean, 01:30ean, Legutianoko DJek jardungo dute musika jartzen.

Zapatuan, berriz, bestelakoen artean, 17:30ean, Panta Rhei taldeak umendako *Txarribari* antzezlan egingo du. Eta gauerako, musika ekitaldiak dituzte antolatuta, goizaldera arte: 23:30ean, Afro Sound Sistem-eko *Batucada* rekin animazioa; 00:00etatik 03:00etara, Gazte Gunean *Testing Programa* egingo dute (drogen testa eta informazioa); 01:00etan Urgabe eta Los Moñas taldeen kontzertua hasiko da eta 04:30etik 07:30ak arte, diskoteka izango da.

Eta asteburuari agur esateko, domekan, 12:30ean, artisauak izango dira plazan; 13:30ean, jazz kontzertua izango da eta arratsaldean, berriz, mozorroekin lotutako ekitaldiak egingo dituzte: 17:00etan, umeendako mozorro tailerra, 20:00etan, mozorroen kalejira eta 21:30ean, mozorroen afaria, plazan. Ordu berean, egunean zehar egindako txahalaren pintxoak plazan ipiniko dituzte salgai.

Legutianarrek euren jaietara joateko gonbita egin gura die aramaioarrei.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2005eko irailaren 8a / 18. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otalora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

Kilometroen barruan, Plater Tiroketa Txapelketa Venta Frian

XABIER URTZELAI

Domekan, goiz eta arratsalde egingo dute Plater Tiroketa Txapelketa. Antolatzaileek 100 lagun inguru espero dituzte, Euskal Herriko herri askotatik eta Errioxatik etorriko dira. Kilometroen alde izanda, aspaldi bota ez dutenak ere animatuko dira.

Hori uste du Aramaioko Kurtzeta-gain Plater Jaurtiketa Taldeko Juan Luis Nafarratek, joan den astean Aramaion egin zuten txapelketan 63 lagun elkartu zirelako. Joan den asteko gehienak eta beste asko izango dira domekan Gatzagan. Txapelketako lehenengo saioak 10:30ean hasiko dituzte, baina arratsaldean ere egongo dira tiroketak. Hala, 16:30ak arte egongo da izena emateko aukera, eta tramitea lehenago egin gura duenak 675 70 21 81 telefono zenbakira deitzea baino ez du.

BAIMENAK, BERTAN

Txapelketetan esku hartzen ibiltzen diren tiratzaileez gain, aspaldi bota ez duten lagunak ere animatuko dira domekan. Haiek jakin behar dute antolatzaileek momentuan bertan emango dizkietela kirol hori praktikatzeko baimenak.



Aramaioko Kurtzeta-gain Taldearen ardurapean egongo da txapelketa hori.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Txapelketari dagokionez, Gatzagan Mini-Fosa modalitatean ibiliko dira: "Hainbat modalitate daude, eta egoten den ezberdintasuna da platerak botatzeko egoten den makina kopurua, zein noranzkotan botatzen duten eta ze distantziara". Hala, modalitate horretan makinek lehenengo ezkertera botako dute platera,

zuzen gero, eta eskuinera azkenik. Tiratzaile ona izateko zer behar den ere galdetu diogu Nafarrateri: "Bistan da gauza guztietan moduan asko entrenatzea ezinbestekoa dela. Punteria ona izan behar da, baita platera berehala ikusteko gaitasuna izatea ere. Baina esango nuke kontzentratuta egotea dela oso garrantzitsua".

Ibarreko punta-puntako tiratzaileak izango dira lehian, eta parekotasun handia egongo dela espero du Juan Luisek: "Arrasateko Ibai Oruna Euskal Selektzioan dabil, Rafael Axpe olinpiadetan egondakoa da, eta Gatzagan ere tiratzaile ederra dago: Matxain beteranoa". Gehiago ere izango dira.

LABUR

Irailaren 26an ikastaro berria KZgunean

Gatzagako KZguneko arduradun Aitor Madrid irailaren 26an izango da Gatzagan, ikastaroa ematen. Astelehen horretan, Adobe Acrobat Reader programaren gaineko ikastaroa emango du. Hala, KZgunera joatera animatzen direnek PDF formatuko dokumentuak irakurtzeko programa erabiltzen ikasiko dute. Aitorrek 11:00etatik 13:00etara emango du ikastaroa, baina lehenago ere KZgunean izango da, 09:00etatik 11:00ak arte, hain zuzen.

Jaietan dirua ateratzeko aukera egongo da?

Badira hilabete batzuk udal txeraren hormetako batean kutxazaina jarri zutela, baina kutxazain horrek oraindik ez du dirurik eman, konexiorako arazoak izan dituztelako. Badirudi aurreikusitakoa baino zabalera handiagoko konexioa behar dutela, eta hori jartzeko zain daude. Udalaren asmoa zen jaietarako herrian dirua ateratzeko aukera izatea, baina ez dakite posible izango ote den.

Asteburuarekin batera, herriko jaiak indarra hartuko dute

X.U.

Jaiak eguaztenean hasi bazituzten ere, asteburuarekin batera hartuko dute indarra. Hala, gaur gauean Txinparta taldeak jarriko ditu gatzagarrik dantzan, baina hau hasi baino ez da egin.

Biharkoa izango da jaietako egun emankorretako bat. 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindularien lasterketak esnatuko ditu

herritarrak (09:30), eta jarraian gaztetxoendako jolasak egingo dituzte (11:00). Ilunkeran, berriz, hitzordu erakargarri gehiago: Karra Elejalderen *Torapia* filmaren emanaldia (20:00), eta rock jaialdia (23:00).

ZAPATUAN GIROA, DOMEKAN KIROLA

Zapatu goiza animatuta egongo da: etxafuego eta bonba japoniarrrak, Gorritiren animaliak, eta Arrasateko gaitariekin batera kiliki eta erraldoiak ibiliko dira

kalean gora eta behera. Gauean, 21:00etan egingo duten herri-afarian elkartuko dira gatzagarrik, eta Haitzama taldeak izango du zapatu gaua girotzeko ardura (23:00).

Domekarako utziko dituzte hainbat kirol hitzordu. Batetik, goian aipatu dugun Plater Tiroketa Txapelketa egingo dute Venta Frian. Arratsaldean, baina, trialsin erakustaldia egingo dute (16:00) eta pilota partiduak jokatu dituzte (17:30).




Pilota partiduekin amaituko dira Gatzagako jaiak.

URLATIK

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2005




RKUZ ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL MUEBLES

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ

SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3

FAGOR

Te./Faxa: 943 77 04 55

ARETXABALETA

RKUZ

ELEKTROGAILUAK

Andramari auzunea

expert

Te./Faxa: 943 79 10 97

ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetsxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

H A I Z E A



Kafetegia eta taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Gurea
TABERNA



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

IOSU
harategia taberna



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte1 • Tel.: 943 77 03 08

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

IBARRA JATETXEA

- menua
- karta
- plater konbinatuak
- bokatak



Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

Mitartegarai Baserri turismoa eta taberna



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA
ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

Aretz Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko

